

## OHOLTZAREN AMA-ALABAK

Antzerkiaz, teloiak ezkututzen duenaz nahiz beren harremanaz aritu dira Gurutze Eizmendi eta Erika Olaizola 20



HORTZ INPLANTE  
ETA PROTESIETAN  
ADITUAK GARA.

Jose Artetxe kalea, 5  
(Ambulatorio ordea) 20730 Azpeitia

INNOVA  
HORTZ KLINIKA

943 025 955

# MILAR LARRAMENDI

Exotresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU ALKERRA ZABALA
- SMART RETAIL PANTAILA DITARTEZKO EROSKETA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIKIKITATZE GUSTO INTEGRALA
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- [www.milar.eus](http://www.milar.eus) ON LINE EROSKETA



608 313 047 (Etxetresnak)  
688 616 881 (Sukalde Gunea)  
Whatsapp bideko zerbitzua.  
Azkarrena!

# MILAR

## Cooking&Chef

Sukalde Gunea



SUKALDE ERAKUSKETA eta  
sukaldea jantzeko behar duzun gurea!

Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA  
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA  
Tel. 943 85 00 41

[www.milar.eus](http://www.milar.eus)



IRAURGI  
ikastetxea

# Gu Gue izateko bidea

ZATOZ GU EZAGUTZERA  
ATE IREKIAK: URTARRILAK 26 - 10:30ean  
T. 943 81 02 10

[www.iraurgi.eus](http://www.iraurgi.eus)



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.eus  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 212.a (2019ko urtarrila)  
**Urtea.** XX.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarrria@uztarrria.eus  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** M. Etxaniz  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.eus](http://www.uztarrria.eus)

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Oharra.** Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

## 2019KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



### iritzia

**Inkesta.** Non ikusten duzu helduen danborrada? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Jose Luis Garate Azpeitiko suhiltzaileen parkeko buruarekin solasean **04**  
**Klik!** Bukatu berri den urteari errepassoa, irudietan **16**  
**Herri hezitzailea.** Balioetan berresteko aurrera begirako helburuak, zehaztuta **24**

### jakiteko

**Bestaldetik.** Manuel Garcia 'Mane', Sanjuandegiko danborrada taldearen zuzendaria **34**

Ba al dakizu azpeitiko 24 saltokik eta erakundek dutela gaur egun bai euskarari ziurtagiria? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu**, **CD 1**, **DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# JOSE LUIS GARATE

Azpeitiko suhiltzaileen etxeko burua

“Irteeren erdiak baino gutxiago dira suari Lotuak”

Suhiltzaileak mangerarekin eta su-itzaigailuarekin imajinatu ohi dira. Askoz ere zabalagoa da, baina, horien lan esparrua. Hala dio Garatek. 📌📷 Julene Frantzesena

**U**rolako suhiltzaileen etxeko burua da azkoitia-rra. Suhiltzaileak mangerarekin eta su-itzaigailuarekin imajinatu ohi dituzte herritarrek, baina hark dioenez, suteetakoak baino “bestelako” esku-hartze gehiago egiten dituzte urtean zehar.

## Azpeitiko parkean, zein da zure egitekoa?

Bi lagun artean ematen dugu zuzendaritza. 24 orduko txandetan antolatu ginenean hasi ginen modu horretan funtzionatzen. Gu, batez ere, parkearen mantenuaz, kamioien jarraipenaz, erosketez... arduratzen gara. Horrez gain, esku-hartzeetan ere parte hartzen dugu: lau laguneko lantalde bat egoten da –hiru suhiltzaile eta arduraduna–, eta gu antolakuntza

arduratzen gara. 26 suhiltzaile gaude Azpeitiko parkean, eta horrela asko garelako ematen du, baina egunero 24 orduz egiten dugu lan, urteko 365 egunetan.

## Gaur egun zein da suhiltzaileen egoera?

Jende gehiago eskatzen ari gara, borrokan ari gara. Gutxieneko lantaldea bostekoa izatea nahi dugu, laukoa motz gelditzen delako. Ni, guardian nagoenean, adibidez, lau parkeren gainean egoten naiz –sarjento denek bezala–. Horren bestez, Azpeitikoan, Zarauzkoan, Eibarkoan edo Oñatikoan zerbait gertatzen baldin bada, autoa hartu eta bertara joan behar izaten dut. Parkean egotea tokatzen bada, lau lagunekin nahikoa da, baina zerbait gertatzen denean... Sute-

## |||DATUAK|||||

|||Jaio. 1966ko azaroaren 25a.

|||Herria. Azkoitia. |||Bizi tokia. Azkoitia. |||Lanbidea.

Suhiltzaileen Azpeitiko parkeko burua.

ren bat badago, lau lagun gutxiegi dira; izan ere, suteetara ez gara sekula banaka sartzen, duten arriskuagatik eta keagatik. Hori dela eta, binaka sartuta laster batean gelditzen gara talde justu samarrarekin. Krisi garaian Espainiako Gobernuak ezarri zuen lege bat tarteko, zortzi-bederatzi urtean ez da suhiltzaile izateko oposaketarekin egin. Tarte horretan jubilatutako egin da hainbat lagun, eta lan-poltsatik kontratatuta dira suhiltzaile berriak. Poltsa, baina, agortu egiten da. Gainera, azken oposaketa proposatu zen bezala proposatu

zelako, emaitzak izan zirenak izan ziren, eta ez da osatu lan poltsarik. Lan poltsarik ez dagoen kasuetan langileok egiten ditugu ordezkapenak; hainbat kasutan derrigortuta gaude lankideen ordezkapenak egitera. Hori horrela izanik, orduak pasatuta gabiltza...

## Suhiltzaile boluntarioen postuak deuseztatu zituzten orain pare bat urte...

Bai, baina ez zen bat-bateko kontua izan. Horien sostengua garrantzitsua izan zen. Adibidez, sarjentu postua atera aurretik Ordizian aritu nintzen suhiltzaile lanetan, eta han bi lagun egoten ginen txanda bakoitzean; boluntarioek asko laguntzen ziguten. Hiru-lau laguneko lantaldeak izatera pasatu ginenean, baina, ez genuen bo-



luntariorik eskatzen esku-hartze txikiak zirenean, eta oso luzea bazen, laguntza guardia egitera etortzeko eskatzen zitzairen. Suhiltzaile etxeetako funtzionamendua aldatu zenean, asko jaitzi zen boluntarioen esku-hartze kopurua. Lehen ez zen pentsatu ere egiten parke batetik bestera laguntzera joaterik zegoenik. Gaur egun, ordea, ahalik eta jende gehienak ahalik eta denbora gutxienean egiten dugu lan, eta esku-hartze handi bat dagoenean, eremu jakin horretako suhiltzaileei beste parkeetakoek laguntzen diete. 10-15 minutuan gertaeraren tokian izaten da beste laukote bat, dituen baliabide guztiekin. Horrek ere eragin zuen boluntarioak noraezean gelditzea.

### Asko profesionalizatu al da suhiltzaileen lana azken urteetan?

Bai, une jakin batean erabaki zuten Gipuzkoan ere zerbait egin behar zela. Zortzi parke irekitzeko erabakia hartu zuten, eta oso ondo ekipatu zituzten horiek. Pertsonala ere, gutxinaka, gehitzen joan dira. Egun, suhiltzaile profesionalen egitura ederra dago Gipuzkoan, eta garrantzitsua da hori mantentzea. Orain parkeak erabat profesionalak dira, eta beti daude suhiltzaileak lanean. Hori ere alde da. Gainera, dena idatzita dago, protokoloa eta lan egiteko modua jasota daude, eta prestakuntza eta lanerako dinamika ere baditugu. 24 orduko guardiek ahalbidetzen dute prestatzen jarraitzea.

### Zer egiten duzue 24 orduko guardietan?

Ordutegia aldatzean erabaki zen 14:00etan egitea errelebo trukaketa. Erabaki ona izan zen; horrela arratsaldean praktikak egiten ditugu, gauean deskantsatu egiten dugu, eta goizean beste ekintza bat edo kamioien mantenua egiteko beta izaten dugu.

### Eta sirena pizten denean?

Dena zehaztuta dago. Dei bakoitzak sailkatuta dago, eta koloretako semaforo batek esaten digu zer nolakoa den gertaera. Ateak ere automatizatuta daude, eta pantaila batean agertzen zaigu zer gertatu den. Sirenak hastearekin, abisua ematen digute megafoniatik, hala nola gertaeraren helbidea eta jakinarazten dizkigute. Badaki-

## |||DATUAK|||||

**164** irteera egin zituzten Urola parkeko suhiltzaileek 2017an. Horietatik 11 alarma faltsuak izan ziren, 78 suteek eragindakoak, 67 salbamendukoak eta zortzi laguntza teknikoak. Azpeitiko parkea da Gipuzkoan 2017an irteera gutxien izan zituztena.

**46** irteera egin zituzten Azpeitira: 23 sute, 19 salbamentu eta lau laguntza tekniko. Azkoitira 54 irteera egin zituzten, lau Beizamara, hogeii Zestoara eta hamalau Errezilera.

gu basoko sute, istripu edo erreskate batera zer ibilgailu eman behar ditugun, dena zehaztuta dago. Dena den, abisuak orientatzaileak dira; dugun informazioaren arabera, guk hartzen dugu azken erabakia.

### Urtean zehar, zer motatako irteerak egiten dituzue gehien?

Jendeak suhiltzailea suarekin lotzen du beti, baina gaur egun egiten ditugun irteeren erdia baino gutxiago dira suari lotutakoak. Azken boladan mendiko erreskateak gehitu dira: jende asko ibiltzen da mendian, eta min hartutakoak asko izaten dira eremu bultzuetan. Askotan horiek artatzera ezin izaten dute iritsi ambulanziek, eta halakoetan hasten da gure lana. Izan ere, guk jaitsi behar izaten dugu ezbeharrak izan duen pertsona hori ambulanziazara. Bestalde, pertsona helduek etxean izaten dituzten istripu txiki askotara ere joan behar izaten dugu; horrelako esku-hartze kopurua ugari egin zaigu. Askotan izaten da adineko pertsona erori eta ezin jaitzi dagoelako. Lehen, bizilagunari etxeko giltza ematen genion, baina gaur egun ez, eta gertu seniderik edo ezagunik ez duen pertsona horri laguntzera gu joaten gara. Halakoetan atea irekitzera

joaten gara edo leihotik sartu behar izaten dugu.

### Listor habiak desegitea ere zuen egitekoa al da?

Izugarritzko zabalkundea izan dute listor habiek. Hasieran suhiltzaileok joaten ginen habiak kentzera; Irungo parkekoak, adibidez, halako esku-hartze ugari egin zuten -diotenez Frantziatik sartu ziren listorrek Euskal Herrira-. Lan karga handia zela-eta aldundiak erabaki zuen udalei eta mankomunitateei ematea habiak tratatzeko ardura. Orduz geroztik horiek arduratzen dira lan horiez, baina ezin badute, argindar kableak daudelako edo oso altu dagoelako habia, guri deitzen digute. Urolako parkean 20 bat irteera egingo genituen aurten listor habiak zirela eta.

### Zeintzuk dira irteerarik gogorrenak?

Fisikoki gogorrenak sute handiak; industrialak, egurrezko eraikuntzenak... Su karga handia izaten da halakoetan, bero egiten du, ke handia egoten da... Eta pertsona guztiak sutatik ihes doazenean guk sartu egin behar dugu. Ekipamendu aldetik ondo prestatuta gaude, baina izugarritzko beroa ematen du jantziak, 20-25 kilo gehiago eramaten ditugu soinean -mangerak, ura eta abar-... Istripuen kasuan, berriz, tentsio handiko uneak pasatzen ditugu, topo egiten dugun egoeraren arabera. Dena den, istripu batean ez bada-

go inor ibilgailuan harrapatuta, ez digute deitzen, baina hori ez dago ondo eginda. Edozein trafiko istripuan egon daitezke isurketak eta askotan bateria moztu behar izaten da surik ez pizteko. Deituz gero, babesa emango genuke, baina ezin da edozein kolpegatik deitu; oreka bilatu behar da. Trafiko istripu kasuetan, karga fisikoa ez da handia izaten, baina ikusitako egoerak... Parkerako buelta ikaragarria izaten da. Askotan autotik hildakoa atera behar izaten dugu, eta ezagutzen ez baduzu, beno, baina ezaguna bada... Parketik irteerako ere kezka izaten dut, istripua izan duena tartekoa izango ote dudana pentsatuta. Ordizian ez nintzen hainbeste larritzen, baina Urolako parkean lan eginda...

### Suari lotutako zenbat irteera egin zenituzten 2017an? Eta zerk eragiten dituzte sute horiek?

Erdiak baino gutxiago izan ziren, 2017an 78 sute artatu genituen. Gaur egun, askotan, sua pizten da tximiniako kelarreak su hartu duelako. Eraikuntza berria bada, ez da arazo handirik izaten, baina urteak eta egurrezko egitura baldin baditu... Sua piztutako baserri batzuetara joatea ere tokatzen zaizkigu. Iaz, adibidez, Egurtza Azpikoa baserria erre zen Azpeitian. Urtero izaten dira halako bat edo bi; izan ere, asko berri badiara ere, baserri zahar ugari dago oraindik. Baso

suteak, berriz, oso gutxi izaten dira inguruotan. Udazkenean bakan batzuk, edo negu partean besteren bat, basoa ihartuta dagoelako izotzarekin-eta...

### Zuek lanean aspertuta egoitea seinale ona da, beraz?

Hala esaten digute: "Zuek hantxe egon geldi-geldirik, mugitzen zarenean ez da-eta gauza onik izaten". Ordu lasaiak izaten ditugu, eta irakurtzen edo telebista ikusten egoten gara. 24 orduko txandak azkar pasatzen dira, eta bi egun eta erdira itzultzen gara lane-ra.

### Zuk esana da: 23 urtean 524 istripu, 189 zauritu eta 23 hildako izan dira Azkaraten. Datuak ikaragarriak ez al dira?

Horrela, bat-batean irakurrita, izugarriak ematen dute, baina... Azpeitia eta Zumaia arteko datuak begiratu gero, ziur nago horiek baino beldurgarriagoak izango direla. Hala ere, Azkaraten 23 urtean 23 hildako, ikaragarria da. Dena den, istripu kopurua asko jaitsi da. Lehengoan aritu ginen horretaz hizketan suhiltzaileen etxean, eta aipatu genuen ez dugula istripu batera joan beharrik izan azken bolada handi batean. Azkena artatuen istripua duela bi hilabete-edo izan zen. Autoa irauli zitzaion pertsona bati, eta barruan gelditu zen harrapatuta. Ondo atera zen.

### Gaur egun zerk eragiten du trafiko istripu gehien?

Ziur nago asko mugikorrek eragindako oharkabeteen ondorio direla. Ikusi egiten dira halakoak, eta neuri ere gertatu izan zaizkit. Bestalde, gaur egun kontrol handia dago, baina gehixeago edanda edo droga hartuta gidatzen du jendeak... Ez daukat zehatz esaterik, baina alkoholak eta drogrek ere izango dute eragina. Garai batean akats mekanikoak edo errepedeen egoera izan zitezkeen istripuen eragileak, baina gaur egun ez.

### Prebentzio lanetan zer rol duzue zuek?

Lehen umeak suhiltzaile etxeetara bisitan etortzen ziren; gunea ikusten zuten eta hainbat azalpen ematen genizkien. Prebentzio lanik ez genuen egiten, ordea, eta iaz prebentzioan oinarritutako plan berri bat egin genuen. Gaur egun, etxeko suteak saihesteko hainbat gomendio ematen diegu haurrei, aldundiak egindako bideo bat ere erakusten diete ikastetxeetan, eta hura ikusi ostean eskolara joaten gara hurrekin bideoaz hitz egitera. Bestalde, azken urteetan *road show* bat ere egin dute Azpeitian -aurten Azkoitian ere bai-, eta errepikatzeko dela uste dut. Izan ere, saio horrek balio du gaztetxoek etorkizunean istripuak saihesteko hainbat erabaki har ditzaten. Kontzientzia oso beharrezkoa da, eta halako ekintzak oso garrantzitsuak dira. Mezua zabaltzea garrantzitsua da.\*

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza  
zaharberritzea  
nahi duzu?



Aberdiño poligonoa, 2  
Tel. 943 335 016  
Zarautz

Santiago auzoa, 12  
Tel. 943 143 443  
Zumaia

San Juan, 15 edif. AXIII  
Tel. 943 852 110  
Azkoitia

Geologia Kalea, 18  
Tel. 943 348 241  
Zestoa

Erositako etxebizitza  
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak

# Di-da edo 'slow'? Hor dago koska

**D**inamoa piztu dadin, denok eragin beharko dugu. Denda txikiak itxi ez ditzaten, bertan erosi beharko dugu. Baserritarrek etsi ez dezaten, sasoikoa azokan eta antzekoetan erosi beharko dugu. Argaltzeko, gutxiago jan eta ariketa fisiko gehiago egin beharko dugu.

Urte hasierako teoriaren Power Point-a ederki asko dakigu denok. Baina Power Pointaren argitan konformatzen bagara, azalean gelditzeko eta erronka izan behar liratekeenak urtzeko eta ahazteko arrisku latza izango dugu. Urte berriarekin batera erronkekin puzten zaizkigu burua eta gorputza, gure ametsetako gailurra behin betiko lortuko dugunaren bihozkada izango bagenu bezala. Gogorra da gero, e? Eta urtero berdin gara!

Urte berria, batere errurik gabe, erronkaz betetzen dugu, urte osoaren eta denboraren jabe bagina gisa. Jakin, jakin beharko genuke, ordea, erronka txikia nahiz handia izan, pauso txikiak emanez lortuko dugula; norbanakoaren nahiz komunitatearen edo kolektibo jakin baten erronka izan, denok norabide jakin batean pausoak emanda lortuko dugula, alegia.

Nire ustez, pausoak elkarrekin emateko, informazioaren, kontzientziarioaren, enpatiarene eta komunitatearen parte izatearen kontzientzia eredu egokiak eta egokituak behar dira. Horrek denon parte-hartzea ekarriko du, eta parte-hartzeak erantzukizuna berarekin dakarrenez, denok gara erantzule zuzenak erronkaren aurrean.

Komunitateari dagokion erronka bada, denok dugu hori aberasteko, iradokizunak egiteko, borondatezko lanak egiteko, informatzeko nahiz eredu xume izateko erantzukizuna. Era horretan, erronka barneratzen eta geure sentitzen badugu, norabide berean ez bada antzekoan joango gara aurrera.

## Erronkara bidaia

Erronka lortu ahal izateko bidaia, ordea, luzea izan ohi da askotan. Bidaia luzearen alde ona



|||||||olatz aguado|||

|||Urte berria, batere errurik gabe, erronkaz betetzen dugu, urte osoaren eta denboraren jabe bagina gisa

da, bide luzea duela. Txikitik furgonetaz mila-kilometro egiten genituenean bezala, bidea bera bidaiaren parte egin beharko genuke denok. Izan ere, ez dira gauza bera di-da lortzen den erronka eta oztopoz betetako bidea lagunekin egindakoan lortutakoa.

Gaur egun erronkak di-da lortu daitezkeela pentsatzea akatsa da nire ustez. Beno, erronkak eta erronka ez direnak hala lor daitezkeela pentsatzea. Gauzak lortzeko di-da horren aukera izatea ez da batere gaizki etortzen, baina gauza jakin eta zehatz batzuk lortzeko... Di-daren sistema ez da kolektiboki erronka egonkorra lortzeko egokia.

Azaldutakoa, aurtengo erronken teoria bezala, jakin jakingo duzue, baina praktikan jartzea falta! Erronkak lortzea ez da erraza, baina bai norberak kolektiboan pauso txikiak ematea, baita lanean ari direnei babesa eta enpatia azaltzea ere. Nire ustez, askotan, erronkak bi aldeetan banatuta egon ohi dira: itzaltzen ari direnena eta pizteko erantzukizuna dutenena. Eta ez luke hala izan behar, itzaltzen ari denak haizearen babesa bilatu beharko baitu indarberritzeko eta erabat ez itzaltzeko. Eta pizteko ahalmena duenak, berriz, urrutikoa eta arrotza dena piztu beharrean, gertukoa eta bertakoa pizteko erantzukizuna ikusi beharko luke.

Orain di-daren zurrunbiloarekin alderatuta horren modan dagoen *slow* proposatzen dizuet. *Slow* hartu estreinatu berri dugun urtea, eta gozatu bidaiaren bidean!\*

*slow*

# Baimena duzu

**B**este edozein kasu izan balitz, berdin jokatu genuke. Istripu bat, sute bat, lapurreta bat, bikote (edo hirukote) bat sexua praktikatzen. Horrek ez luke ezer aldatuko. Kasu honetan, erditze bat izan zen, 1766 Matxinada kalean. Pasa den urteko abenduaren hasieran, sei aldiz iritsi zitzaidan Whatsappez emakume baten bideoa, kalean haurra izaten, egun argitan. Bat-batean, herri osoa ari zen horretaz hizketan.

Beste konturik ez zen, eta ordu erdi baino lehen, kostaldeko herri bateko lagun batek ere galdetu zidan erditze horren inguruan zerbait ba ote nekien. Bi aldiz pentsatu gabe, norbaitek momentu hori izoztu zuen betirako, eta beste askok momentu hori bera zabaldu eta erreproduzitu zuten ehunka aldiz. Hori da jokamolde normala. Zerbait harrigarria ikusten dugun bakoitzean, ezin disfrutatu, ezin amorratu, ezin sentitu... ezin egon eskua poltsikoan sartu eta mugikorra atera gabe.

Gure izateko modua da hau. Ez badago datu grafikorik, ez da gertatu. Eta hori ez da teknologia berrien errua, hori gure errua da: erabiltzaileena eta talde korrontearena. Baina gatozen berriro Matxinada kaleko erditzera. Sortzen didan ezinegona hiru puntutan banatu dut, ideiak argiago ikusteko.

## Bat, bi eta hiru

**BAT.** Katearen lehen fasean, bideoa grabatu zuen pertsona dago. Bi aldiz pentsatu gabe, mugikorra atera, eta gertatzen ari zena jaso zuen. Ez dakit unereren batean burutik pasatu ote zitzaion erditzen ari zen emakume hark nahiko ote lukeen bideo hori grabatzea. Ez dakit burutik pasatu ote zitzaion bera izan zitekeela, bere alaba edo ahizpa. Ez da erraza zehaztea zer alde dagoen intimoaren eta publikoaren artean, eta kalea denona denez, tentazioak irabazten digu. Erditzea parean tokatu zitzaion horretaz ari naiz hizketan, baina bada-kizu zu izan zintezkeela, ni izan nintekeela.

**BI.** Hurrengo pausoa egin zuten bideo hori



eneritz albizu

III Ez badago datu grafikorik, ez da gertatu. Eta hori ez da teknologia berrien errua, hori gure errua da

han eta hemen zabaldu zuten guztiek. Berez, ez dirudi horrenbesteko akatsa denik hori zabaltzea, normaltaz ikusten dugu halako bideoak konpartitzea. Denok egin dugu. Baina kostatu egiten zaigu konturatzea bideoa grabatzea bera ez bada guztiz zuzena, guk bideo hori zabaltzen dugun bakoitzean, oker bera errepikatzen dugula mila aldiz.

**HIRU.** Azkena eta garrantzitsuena. Hainbat hedabidek albiste bezala eman zuten bideo hori. Hori izan zen zabalkundearen zabalkundea. Eta niri ez dit balio esateak haurra izan zuen emakumeak berak nahi zuela telebistan irteeta. Ez dit balio, bideo hori telebistan jarrita mezu bat ematen ari zarelako: "Erabiltzaile batek bideo hau grabatu du, eta guk albistegian jarri dugu. Eskerrik asko zure bideoagatik". Alegia, zilegitasuna ematen ari zara ekintza horri, bere baimenik gabe bere intimitatea grabatzeari eta ekintza hori "albiste" bihurtzeari. Eta ikus-entzuleari adierazten diozu balekoa izan dela hori, berriro ere, gustura jasoko duzuela era horretako bideoa. Baimena ematen ari zara. Beraz, ahaztu aurretik esandakoa, telebista publikoaren, besteak beste, baimena duzu-eta.

Eta guk horrelaxe jarraitzen dugu, eta beste edozein kasu izan balitz, berdin jokatu genuke. Istripu bat, sute bat, lapurreta bat, bikote (edo hirukote) bat sexua praktikatzen. Horrek ez luke ezer aldatuko.\*







AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI HLHI - Euskal Herria 50. 20730-AZPEITIA • [www.karmeloetxegarai.eus](http://www.karmeloetxegarai.eus)

## KALITATEZKO IRAKASKUNTZA EUSKARAZ 2tik 18 urtera



**PUBLIKOA**

**ELEANITZA**

**INKLUSIBOA**

**PAUSOZ PAUSO AZPEITIAN ETORKIZUNA ERAIKITZEN**

**ATE IREKIAK: KARMELO ETXEGARAI IKASTOLAN**

**URTARRILAK 26 - 10:30etatik 13:00etara**

**URTARRILAK 30 - 09:00 etatik 12:30etara / 15:00etatik 17:00etara**



**UROLA IKASTOLA BHI. - Perdilegi 3, 20730-AZPEITIA • [www.urola.org](http://www.urola.org)**



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Euskaraldia bukatuta ere, 'Ahobizi'.

Herriko saltoki honen jabeak Euskaraldia bukatu den arren 'Ahobizi' dela dioen pegatina atean mantentzea erabaki du. Bejondeiola! **Uztarria**

**BEHERA.** Askotariko lanak, baina...

Denetariko pintura, lakatu eta berniz lanak egiten dituen pintore honek gaztelania hutsean jarri ditu iragarkiak herriko hainbat txokotan. **Uztarria\***



Oihana Orbeagozo pilotaria.

## ESANA DAGO

“Emakume Master Cup txapelketa esperientzia polita izan da”

“Hotz samar hasi nintzen lehian, baina gero eta hobeto moldatu naiz. Iaz baino txapelketa hobe egin dut aurten”

OIHANA ORBEGOZO  
pilotaria

“Euskal selekzioa nazioarteko lehietan aritzea lortzeko bidea luzea eta zaila izango da, baina pausoa eman da”

IÑIGO ARREGI  
Lagun Onak futbol taldeko presidentea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut: 943 81 57 81

**Aiortza Autoak**

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiortzaautoak@telefonos.net

**MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK**

## Ariketa zaila

**A**spaldi aitortu nizuen ez nukeela aita petrala izan nahi. Nahia desio hutsean gelditzen ari delakoan... Izaera baikorreko mutila izan banaiz ere, gizon ezkorra bihurtzen ari naiz. Agian begi-bistaren arazoa izango da, agian led bonbiletara ez naiz ondo egokitu, baina dena beltz, dena ilun ikusten hasia naiz. Hori bai, kontrax izaera inork ez didanez kenduko, ilunari aurre egiteko argi printzen bila hasteko ariketa egitera behartu dut neure kaskezur arina. Hasi banaiz hasi, blokeatuta nago. Hemen itzaltzeak eta pizteak ez du balio. Dena beltz, dena ilun ikusten jarraitzen dut. Kasu hauetan historiak erakusten digu

argi printzei lekua egiteko gerra izan dela gizakiak erabili duen tresna... eta horrek barrubarruko erraietarainoko hotzikara sortzen dit. Ez dut gerrarik ezagutu eta ez dut gerrarik nahi. Mundua norabide okerrean doa.

Orain arte, belaunaldi orok aurrekoaren bizi baldintzak hobetu eta bere ondorengoei bizi kalitate hobea eskaini die. Beraz, gure belaunaldia izango da historiako belaunaldirik eskasena, ustelena. Dena izan eta gure ondorengoei ezer utzi ez dien belaunaldia. Ongizate epel eta erosoan lokartu zen artaldea. Ardiok siloan usteldutako belar gozoaz konformatzen garen bitartean, fede eta itxa-



### txetxu urbieta

ropen osoa arkumeengan jarri behar. Ukui-luan usteldu nahi ez badute, larre bila atera beste aukerarik ez dute. Aiton-amonen izerdiak eraiki zuen ondarea biloben esku dago. Eta nik, beti, erabateko fedea eta itzaropena ditut gazteengan.

Pentsa, goseak hiltzen, gerretatik eta jazarpenetatik ihesean dabiltzanek, datorrena ez ezik, dutena nola ikusiko duten. Otarretxo beteta dugunon kezka zer ote da otarrerik ere ez dutenen parean. Beti dugun apurra galtzeko beldurrez.

Izan enpatiko! Eta ez joan enpatearen bila!\*

### IKUSTEKO!



### ▲ OILO KALEZALEA DAMASONEAN.

Damaso Azkue auzuneko espaloietan pasieran ibiltzen zen hegazti bakartiaren argazkiak (goikoa, horietako bat) iristen hasi ziren Uztarriara abenduaren erdi aldera. Oilo kalezalea behin baino gehiagotan eta batek baino gehiagok ikusi dute inguru beretsuan; non, eta Oilo-Soro esaten zitzaion parajeon. 🐔🐔 **Uztarria\***

## ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### Kirol sariak

**KIROLA.** Urtero legez, aurten ere herritar ugari izendatu dute Kirol Sarietarako, baina ziur ez daudela denak. Meritu gehiagorekin edo gutxiagorekin, jaso dute beren oroigarria. Dena den, gustura eta ilusioarekin eskuratu badute ere, saririk estimatuena ez da hori. Benetan baloratzen dena da egunerokoan taldean egiten den lana, esfortzuaren ondorioa eta probetan parte hartzea. Gutxien begiratzen zaion alorra, berriz, osasunarena da; bai fisikoa, bai mentala. Eta hori da benetan balioa eman behar geniokeena.



Juan Carlos Arellano



### Bertanen ginkana

**EKONOMIA.** Black Friday zela-eta erakusleihoak beltzez jantzi zituzten. Gero, kaleko argiekin batera, gorritz koloreztatu ziren gunehoriek. Herrian erosteko pizgarri bezala, orain, ginkana. Ez da lan makala merkatariek egiten dutena: urrezko txartelen menpe, merkatalgune handien kontra, *sangoogleren* kontra, herri handietako saltoki handien aurka. Aupa zuek!



### Apustu etxeak

**GIZARTEA.** Apustu etxearen inguruan sortu da bai eztabaida. Erraza da alde edo kontra egitea. Eztabaida ez da oraingo kontua, baina orain arte ez dugu begien aurrean ikusi nabarmen eta eskura. Baina badugu zertan pentsatu, eta ez gai horri buruz bakarrik. Adikzio ugari ditu-

gu, eta asko oso erraz gizarteratu ditugu. Gauza guztiek beren neurria dute, eta hor dago koska. Hemendik aurrera ez dugu zozketetan parte hartuko, kineietan, Espainiako loterian, Oncerenean, herriko zenbait elkarterenean... Neurria hartzea nobere kontu?\*

## INKESTA

non ikusten duzu  
helduen  
danborrada?

I. Elustondo/A. Olaizola

SEBASTIAN ORENA

72 urte



**“Erdikalean bizi naiz, eta balkoitik ikusten dut. Pasatzen ikusi eta kalera ateratzen naiz. Kalean ere saiatzen naiz berriz ikusten, baina ez da erraza izaten. San Sebastian eguneko diana gustatzen zait gehien”.**

MARIA LUISA IRULEGI

67 urte



**“Eguraldi txarra egiten badu, balkoitik ikusten dut, aterkiarekin.**

**Eguraldi onarekin kalean ikusten dut; gehiago gustatzen zait. Lehen leku batean baino gehiagotan ikusten nuen desfilea”.**

AITOR MENAYO

28 urte



**“Berez gustatzen zait kalean ikustea, baina azken urteetan etxean edo lokalean ikusi izan dut, telebistaz. Gustatzen zait danborrada, giro ederra sortzen baita herrian”.**

SAGRARIO GURRUTXAGA

81 urte



**“Herriko festarik ederrenak dira sasebastianak, izugarri gustatzen zaizkit. Plazan bizi naiz, eta danbor taldeak han elkartzten direnean, balkoitik ikusten dut danborrada, tapa-tapa eginda”.\***

## Aynuera

**A**ynu jendearen hizkuntza da aynuera. Eta non bizi dira aynuak? Ba, Japoniako iparraldean, Hokkaidon gehienbat; lehen, berriz, egun Errusiaren zati diren Sakhalinen eta Kuril Uharteetan ere bai. Kontua da, gaur egun Hokkaido Japoniaren zati den arren, aynuak antzinatik hor bizi izan direla, eta egun batean, ondo ulertzen ez zituzten arrazoiengatik, Japoniako Estatuaren barruan geratu zirela. Aynueraren jatorria, euskararena bezala, oraindik ez dakigu non dagoen. Adituek diotenez, aynuera orain dela gutxi galdu zen; duela gutxi zendu zen azken hiztun natiboa. Hiztun natiboak desagertzen direnean joshi ohi da hizkuntza hori hiltzat. Beraz, XXI. mende honetan, hizkuntza bat nola galdu den aurrez aurre ikusi dugu. Ez dut hemen kontatuko nolatan iritsi den aynuera bukaera negargarri horretara.

Batzuentzat hizkuntzen galera ez da hain penagarria, baina hizkuntza kulturaren arlo izugarri garrantzitsua da. Edo ez da arlo bat, baizik eta kulturaren



hiromi yoshida

oinarria da, eta gure nortasunak oinarri daukan zerbait dela pentsatzen badugu, hizkuntza galtzea eta gure izatea galtzea gauza bera izan daitezke.

Bestalde, idazteko sistemarik ez zuten aynuek ahozko literatura itzela daukate. Ahoz aho milaka urtetan transmititutako bilduma erraldoia grabatuta eta idatzira pasatuta dago egun. Beraien musika eta dantzak ere badituzte, baita mota askotako berezko eskulanak eta beraien jainkoak gurtzeko hainbat zeremonia ere. Baina hizkuntzarik gabe, hutsune izugarria sentitzen da. Orain, beraien burua aynutzat duten gazteak gogoz ari dira aynuera ikasten, Hokkaidoko herri askotan antolatuta dauden eskoletan. Dena den, egunerokotasunean erabili gabe oso zaila da hizkuntzak bizirautea.

Euskararen egoera askoz hobea da, baina ez bagara kontu handiz ibiltzen, hortxe dago galbidea. Joanean Artzeren hitzak ez daude zaharkituta, eta ez dira inoiz zaharkituko, ez Euskal Herrian, ez beste inon.\*

galdetzen hasita, berri txarrak taldeak emango al du ikusi arte 2019 birako kontzerturik azpeitian? Uztarrria

## Oilo-ipurditan

**A**zpeitiarrok festazaleak gara bai, gureak zein gureak ez diren festa egunak egutegian sartu eta urte osoa ospakizunez ospakizun igarotzen dugu. Baina zein dira benetan oilo-ipurdia eragiten dituzten jaiak? Besteak beste, entzutetsuak dira helduen danborradako gauerdiko *San Sebastian martxa* eta San Inazio jaietako txupinazoa. Niri, ordea, pasatu berri diren santotomasetan jarri zitzaidan lehendabiziko aldiz oilo-ipurdia herriko jaietan.

Higuinagarria zaidan zerbait jatea eta auzo-lotsa dira oilo-larrua jartzen didaten gauza bakarrak. Hoztikara sortzen dit Azpeitian baserriarrez jantzeko dagoen modak. Nondik dator belauerainoko gonak jantzeko ohitura? Eta azpiko gona itsusiak agerian eramateko joera? (Puntilla dotoredun azpiko gonak izango bagenitu sikiera, harrotasunez erakutsi ahal izateko).

Baserrietako sutondoak desagertu zirenetik




irati aranguren

galdu egin da belaunaldiz belaunaldiko ohiturak mimo mantentzeko gaitasuna; horren ondorio da hemengo egoera. Baserriar janzkerari buruzko ezjakintasun handia dago Euskal Herrian. Ereduak galtzeak, gure janzkerarekiko begirune faltak, informazio ezak, industriaren estandarizazioak eta beste zenbait gertaerek eragin handia izan dute gure jantzetan.

Mendeetan barrera aldatu egin da baserriar janzkera; hori dela eta, zabala eta aberatsa da dugun aukera: hor ditugu XIX. mendeko janzkera zibilaren ondorioz geratu zaizkigun jantziak (baserriar jantzia, artzain jantzia eta amona jantzia), festa jantziak, arrantzale giroko jantziak zein dantzarako jantziak. Argi dago estilo askotariko arropa dugula eskura, beraz jantzi gaitetzen dotore.

Gauzak horrela, azpeitiarrok, egin dezagun promesa urte berri honetarako: 2019ko Santo Tomas egunean mimo gehiagoz jantz gaitezen.\*

HAU HOLAXEENK



## Ikusi arte

**D**uela aste batzuk jaso genuen berria. Berri Txarrak taldeak 25 urte betetzen ditu 2019an, eta urtemuga ospatzeko biraren ondoren etenaldi mugagabea egingo dute. Utzi egingo dutela, alegia. Aix! Hunkitu egiten naiz, Gorka Urbizu taldeko liderrak hori jakinarazteko idatzi zuen komunikatua irakurrita.

Ezagutzen nauzuenok badakizue zeinen gustuko dudana taldea. Objektibotasuna gailtzen dudala esango duzue, eta ez zaituztet engainatuko. Arrazoi duzue. Horretan datza Berri Txarrak askorengan duen eraginak; lotura emozionala dela alegia, gure musika

biografian leku pribilegiatua sortu duela. Eta hori urte luzez mantentzea ez da lan erraza izaten. Normalean, taldeek eta doinuek epe konkretu batean zeharkatzen zaituzte. Norbera aldatzen eta garatzen doan heinean, musika gustuetan ere bilakaera ematen da, eta abesti batzuk iraganeko *niari* lotzen dizkiogu, izan ginen horri, beste kanta batzuei lekua uzteko.

Badirudi, ordea, Berri Txarrakoei jakin dutela gure etapa desberdinei soinu banda ipintzen. Nire etapan kasuan bai behintzat. Besteek La Polla entzuten zuten bitartean eta ni Operacion Triunfora kateatuta nengo-

||||||| **felipe murillo** |||||  
ela, salbamendu txalupa baten moduan iritsi ziren. Harrezkero, beraien doinuekin negar egin dut, haserretu naiz, abestu dut, maitemindu naiz, larrua jo dut, ahaldundu naiz...

Eta gaur egun, lau akorde baino gehiago dituzten kantak maite ditut, beraien hitzetan poesia dutenak. Ez. Ez naiz objektiboa eta ez dut beraien abestien kalitateaz hitz egingo. Kalitateaz bai, ordea. Emozionatzeko gaitasunaz. Nahi duzunaren eta behar duzunaren arteko distantziak laburtzeko ematen duten aukeraz.

Agur esango diegu, eta... Orain zer?\*



## Erotikan Plax!

**M**argolari eta erizainari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

**Noiztik sentitzen duzu margotzeko desioa?**

Txiki-txikitatik. Margotzen, batez ere, istripu baten ondoren hasi nintzen.

**Mundu erotikoa mural batean marrazteko eta hori egia bihurtzeko boterea bazenu, zer irudikatuko zenuke?**

Bururik gabeko gorputz biluziak irudikatzen ditut horma handi batean. Kolore guztiak egongo lirarteke bertan, nahastuta.

**Noren gorputzean marraztuko zenuke gustura?**

Gardena eta errespetuzkoa den pertsona baten gorputzean.

**Zeintzuk dituzu nahiago: kolore hotzak ala beroak?**

Beroak, horiekin gehiago transmititzen dela iruditzen zait. Gorria da gehien gustatzen zaidan kolorea.

**Harremanetan, margolan abstraktuak edo errealistak nahiago?**

Abstraktuak. Behin ere ez dakizu zer etorriko den...

### |||OLATZ ALKORTA|||



Adina. 30 urte.  
Herria. Azpeitia.  
Bizitokia. Azpeitia.  
Lanbidea. Erizaina.

**Ligatzerakoan: trazu azkar eta potoloak edo meheak eta detailatuak?**

Azkar eta potoloak nahiago ditut.

**Laztanak jasotzeko gorputz atal bat?**

Bizkarra.

**Jolaserako baliagarria da?**

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920  
Hitzorduak, hilabetea: hilaren 9an  
(16:00-19:00) eta 26an (10:00-13:00).



Irribarrea.

**Aske dantzatzeko musika eder bat?**

Inguru eroso batean, musika guztiak dira onak.

**Irakurri duzun liburu erotikoko bat?**

*Cuando el negro se hace rosa.*

**Nola zaintzen dituzu harremanak?**

Behar denean egonda eta behar dudanean jasotzen jakinda. Elkar zaintzea garrantzitsua da.

**Negu hotzerako plan bero bat?**

Mantapean pelikula bat ikustea.

**Gainditu beharreko beldur bat?**

Beldurra baino errespetua diot bikote harremanari.

**Gustukoa duzun ilustratzaile bat?**

Amaia Arrazola.

**Pintzelaren puntan esan gabe gelditu zaizun zer bait?**

Dena esanda gelditu da.\*

### ▼ URTARRILA.

Urtarrilean hasi ziren hondakinak jasotzeko sistema berria ezartzeko azken urratsak egiten. Hain zuzen ere, hil haren bukaeran hasi ziren txip bidez ireki daitezkeen errefusarentzat eta hondakin organikoarentzat edukiontziak jartzen. Edukiontziak zabaltzeko beharrezkoak diren txartelak ere urtarrilean hasi ziren banatzen. Hilabeteak dira jada hondakinak biltzeko sistema ezarri zutela, eta emaitza onak ematen ari da; izan ere, apirilekoak dira Urola Erdiko Mankomunitateak jakinarazi zituen azken datuak, eta hil hartan %73,73koa izan zen gaikako bilketaren tasa.



### ▲ OTSAILA.

Azoka Plaza berriua inauguratu zuten joan zen otsailaren 2an. Dozenaka herritar izan zen haren irekiera ekitaldian, eta horiek Zigor Iturrieta nahiz Xabier Izagirre sukaldarien erakustaldiarekin eta Ekain Txou pailazoaren emanaldiarekin gozatu ahal izan zuten. Trikitilariak ere aritu ziren giroa alaitzen, eta hainbat politikarik hitza hartu zuen eraikin berriaren aurkezpenean.

# 2018a argazkitan

2018ak hainbat albiste utzi zuen herrian. Horietako batzuk ekarri ditu Uztarriak hona, joan den urtearen errepassoa egiteko. 📌 Julene Frantzesena 📷 Uztarria





### ▲ MARTXOA.

Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, mundu osoko milaka emakumek egin zuten bat egun horretarako deitutako greba feministarekin. Azpeitia ez zen salbuespena izan; hain zuzen ere, ehunka emakumek egin zuten lanuztea, eta horiek bat egin zuten herriko mugimendu feministak deitutako ekitaldiekin. Eguerdian mosaiko aldarrikatzailea egin zuten plazan, eta arratsaldean elkarretaratzea egin zuten toki berean. Greba feministaren balorazio "oso positiboa" egin zuen Azpeitiko mugimendu feministak.

### ▶ APIRILA.

Hilaren 18an, Madrilgo Kontu Auzitegian deklaratu zuten Iñaki Errazkinek eta Ainhoa Intxaurrendietak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko arduradun zirela Zubietako errauste plantaren proiektua geratzea egotzita. Proiektua geldiarazteak eragindako kalte ekonomikoa beren gain hartzea nahi zuen GHK-k –gaur egun EAJk eta PSE-EEK dute gehiengoa–, eta akusazioak 46 milioi euroko zigorra eskatzen zuen bi auzipetuentzat. Kontu Auzitegiak urrian eman zuen ebazpena, eta errugabetu egin zituen Ingurumen diputatu ohia eta GHK-ko presidente ohia. Aferak auzibidean jarraitzen du oraindik, kontsortziok helegitea jarri baitzion epaiari.





### ▲ MAIATZA.

Basilio Urbistondo gudari urrestildarra hil zen hilaren 28an, 100 urte zituela. 36ko gerran Eusko Gudarosteko San Andres batailoian Errepublikaren alde borrokatu zuen.

### ▼ EKAINA.

Siriako ehun bat errefuxiatu Loiolan izan ziren ekainaren 10ean Hospitalitatearen Bideak egitasmoaren barruan. Bakearen eta harreraren kultura aldarrikatzeko egin zuten egitasmoa, eta Azpeitiko eta Azkoitiko alkateez gain, han izan zen Iñigo Urkullu lehendakaria.



### ◀ UZTAILA.

1960tik gaur arte herrian jazotako giza eskubideen urraketen liburua argitaratu zuen Aranzadik. Egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko ekitaldia egin zuen udalak, eta giza eskubideen urraketak bizi izan dituzten herritarrek hitza hartu zuten. Frankismotik gaur arte Azpeitiak izan dituen bost alkateek adierazpen bateratua irakurri zuten.

### ▶ ABUZTUA.

Abuztuan ere ez zuten hutsik egin pentsiodunen protestek; izan ere, abuztuaren 1ean, San Inazio bigarrenenez, pensio duinak eskatzeko elkarretaratzea egin zuten dozenaka lagunek plazan. Hain zuzen ere, udal ordezkariak Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak harrera egin zieten, eta pentsiodunak bertan izan ziren berain aldarrikapenak plazaratzen.





## ◀ **TRAILA.**

Hilaren 29an egin zuen profesionaletan debuta Jon Alberdi pilotariak, Izarraitz pilotalekuan, herritarren babesean. Oinatz Bengoetxearen eta Alvaro Untoriaren aurka jokatu zuen Alberdik estreineko partida, Jon Ander Albisu bikote zuela. Azpeitiarrak ezin izan zuen profesionaletako lehen partida irabazi; 22 eta 19 galdu zuen neurketa. Argazkian, Alberdi kuadrillakoekin partidaren ostean.

## ▼ **URRIA.**

Imanol Elias historialari zenak idatzitako 'Matxinada' obran oinarritutako herri antzerkia eskaini zuten dozenaka lagunek Soreasu antzokian. Emanaldi harekin hasi ziren XXXVI. Euskal Antzerki Topaketak, eta jendetza izan zen ikuskizunaz gozatzen.



## ▲ **AZAROA.**

Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak Joxe Mari Iriondo kazetaria saritu zuten, egindako ibilbideagatik. Ekitaldira ezin izan zuen bertaratu, eta haren seme Josebak jaso zuen oroigarria –argazkian, eskuinetik aurrena da Joseba–.

## ▶ **ABENDUA.**

11 eguneko ariketa sozialaren ostean, abenduaren 3an Euskaraldiaren amaierako ekitaldia egin zuten Sanagustin kulturgunean. Azpeitian 2.814 lagunek eman zuten izena Euskaraldian, eta egitasmoa sustatzeaz arduratu den batzordeak eskerrak eman zizkien herritar horiei.\*



# GURUTZE EIZMENDI ETA ERIKA OLAIZOLA

aktoreak

## Teloiaren atzean

Hainbeste alditan antzeztutako pertsonaien larruak erantzi, eta teloiaren atzean gordetzen dena azaleratu dute. Biluztu egin dira ama-alabak. 📝📷 Ihintza Elustondo

**G**urutze Eizmendi batetik, eta Erika Olaizola bestetik. Ama eta alaba, parez pare. Batetik bestera, 21 urteko aldea besterik ez. Berdinak dira ia fisikoki. Bera dute afizioa. Eta hala ere, berdinetik baino ezberdinetik gehiago dutela diote.

Amak “hoztasun” puntu bat duela dio Olaizolak. Eizmendik, berriz, alabak gertaerak nahiz sentipenak aztertzeko duen joera nabarmendu du. “Agian, gehiegi azterten ditu gauzak”, dio amak. “Edo zuk gutxiegi” alabak.

Badira urte batzuk ez direla elkarrekin bizi, baina horrek ez du guztiz eten behin biak lotu zituen zailbor hestea. Ezin jakin elkarriketa honek eragina izan duen edo ez, baina hitzorduaren bezperan, etxeokoen egoteko gogo sartu,

eta gurasoenean pasatu zuen gaua Olaizolak. “Sinesten dut ezer ez dela kasualitatea”.

**Nondik datorkizue antzerkirako harra?**

**ERIKA OLAIZOLA:** Lotsagabertasuna txikitatik dakarkit, jendearen aurrean egoteko zaletasuna. Antzeztu, kantatu, bertsoak asmatu... Denetarik egiten nuen. Taberna izan genuen Errezilen, eta umetako bideoetan ikusten da erratzaren pala hartuta nola aritzen nintzen kantuan. Hara joaten ziren gizon baserritarrak izan ziren nire lehen publikoa. Bazegoen zerbait oso naturala nire barruan, nahiz eta ez nion formarik ematen. Gero ulertzen dituzu gauzak.

**GURUTZE EIZMENDI:** 4 urterako artista txiki bat zen Erika. Ni, berriz, oso berandu hasi nintzen.

### |||DATUAK|||||

|||**Izena.** Gurutze Eizmendi.

||**Jaio.** 1968ko maiatzak 15.

|||**Herria.** Azkoitia. |||**Bizi tokia.**

Azpeitia. |||**Lanbidea.** Aktorea.

### |||DATUAK|||||

|||**Izena.** Erika Olaizola. ||**Jaio.**

1989ko urtarrilak 29 |||**Herria.**

Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia.

|||**Lanbidea.** Aktorea.

Gurasoen antzerki tailer batean izena eman nuen 25 bat urterekin, eta gustatu egin zitzaidan. Pentsatzen dut, agian, lehendik izango nuela barruan zerbait, baina umea nintzela nire parean ez zen tokatu antzerki tailerrik.

**E.O.:** Nik txikitatik ikusi dut ama antzerkia egiten; Lakrikun taldeari jarraipen handia egin nion. Gaine-

ra, pila bat gustatzen zitzaidan saltsa hori dena, eta ahal nuen obra denetara joaten nintzen. Hori bizi izanaren oroitzapenak daukat. Elkarriketa hau egiteko proposamena jaso nuenean [hunkituta], sekulako ilusioa egin zidan; izan ere, amari esker nago gaur nagoen lekuan. Atzera begiratzen dudanean, konturatzen naiz amak sekulako papera izan duela, txikitatik erakutsi eta transmititu didalako antzerki amateurak daukan izpiritu hori, agian beste modu batera jasoko ez nuena. Orain dela gutxi hartu dut horren kontzientzia. **Ez al zinen lotsatzen ama agertokiaren gainean ikusten zenuenean?**

**E.O.:** Alderantziz. Oso harro sentitzen nintzen eta harro sentitzen naiz oraindik. Hori izan da nire



lehen inspirazioa: ama antzezten ikustea.

**Noiz hasi zinen zu ere antzerkia praktikatzen?**

**E.O.:** Ikastolako antzerki tailerrean aritu nintzen umetatik; ama ere izan nuen irakasle. 18 urte egin eta gero, ez nekien antzerkia ikastea zegoenik ere, edo momentu horretan ez nuen aukera hori planteatu. Denak bezala, zerbait egitera joan nintzen, eta errerealizazioa ikasi nuen. Ikasketak bukatzean, Donostian Arte Eszenikoen Tailerra zegoela jakin nuen, eta izena eman nuen. Han ikasten ari nintzela, lehen antzeztan profesionalen parte hartu nuen, Vaiven konpainiaren *Lotsagabe* obran, duela zazpi urte. Orduetik gaur arte antzerkitik bizi naiz.

**Eizmendi, pentsatzen al zenuen alabak zure bidea jarraituko zuela?**

**G.E.:** Ez. *Teatrera* beti izan da,

ikusten zitzaion bazekarkielako gaitasun hori, baina ez dago jakiterik. Dena den, zer ikasi erabaki behar zuenean, ez zuen bere burua leku itxi batean lanean ikusten, sortzen baizik. Eta beti transmititu du konfiantza; jakin du mugitzen, sortzea tokatzen denean sortzen, aukerak aprobetxatzen... Bere bidea zein zen argi zuen, eta hala ari da egiten. Aurrera egiten dakien horietakoa da.

**E.O.:** Egia esan, oso eskertuta nago amari eta aitari. Inoiz ez didate oztoporik jarri edo esan "hobe duzu hau egitea badaezpada". Sekula ez. Beti egin dudan aukeran konfiantza jarri dute. **Zer du antzerkiak harrapatzen duena?**

**G.E.:** Nahiz eta emanaldia hasterrako urduri egon eta zalantza asko izan, egiten duzunean jasotzen duzuna ederra da. Ikusten duzu jendeak ondo pasatu duela, txalo

jo dizula, eta pentsatzen duzu: "Begira zer konexio dugun; hau ezin da galdu". Uste dut horrek harrapatzen duela.

**E.O.:** Zer, nola eta nori kontatu nahi diozun aukeratzea sekulakoa da. Eta hori kontatzen duzuna zeu bazara, pertsonaia zure egiten duzu, pertsonaia hori zuk ematen diozu eta berak zuri... Hor sortzen den magia izugarria da. Sekulakoa da une jakin horretan publikoarekin sortzen den harremana. Baina, askotan, aktore bezala esaten duzu: "Zergatik egiten dugu hau?". Ofizio honen txanponaren bi aldeak ari naiz deskubritzen, bere argiak eta itzalak. Eta egia da batzuetan errekonozimendu baten bila ari garela, eta horren kontzientzia hartzen duzu. Horrek atzetik gabezia bat du. Batzuetan, agian, baltsamo bat da hau, ikusi nahi ez dudana zauri bat estaltzeko balio duena. Izan

ere, aldi berean, bakardade handia daukazu; egon zaitezke jende askoren aurrean, baina gero etxera joandakoan bakardade hori benetan sakon sentitzen duzu batzuetan. Horregatik, baltsamo ere bilakatzen dira txalo horiek. Ego asko mugitzen den ofizio bat da. Baina, era berean, hortik elikatzen gara. Horregatik, terapiak asko laguntzen dit niri, une oro kontzientzia hartzen joateko eta guzti horretatik lur hartzeko.

**Ibilbide oparoa duzue bi aktoreok, nahiz eta oso bide ezberdinak jarraitu dituzuen. Olaizola modu profesionalen ari da lanean azken urteotan, eta Eizmendik bide amateurra jarraitu du. Eizmendi, zu Lakrikuneko kide zara. Zertan da egun taldea?**

**G.E.:** Egun, hiru aktorek osatzen dugu taldea: Alaitz Olaizolak, Idoia Urangak eta nik. Maiatzean

agurtu genuen *Greban gaude* obra, eta orain *Prest gaude!* eta *Non gaude?* lanekin ari gara. Pixka bat zaharkituta gelditu zen *Greban gaude*, eta horrenbeste emanaldi eta gero, obrak bukaera bat behar zuela sentitu genuen. Orain, beti esaten dugu laugarren bat etorriko dela; nik uste dut etorriko dela.

**Olaizola, berriz, hainbat antzezlanetan aritu zara; 'Francoren bilobari gutuna' eta Euskal Antzerki Topaketetan ikusleen saria jaso berri duen 'Lur' obretan, besteak beste. Zer nolako esperientziak izan dira horiek?**

**E.O.:** *Francoren bilobari gutuna*-rekin aspaldiko amets bat bete nuen, nire erreferente izan direnekin parez pare lan egiteko aukera izan nuelako. Euskal Herrian 60 emanaldiko bira egin genuen, eta oso bizipen indartsua izan zen. Baina, batez ere, sekulako eskola izan zen, pila bat ikasi nuen. Bestalde, *Lur* askoz ere goxoagoa izan da. Egia esan, *Francoren bilobari gutunaren* ostean, pila bat eskertu dut *Lurrek* eman didan goxotasuna. Oso berezia da niretzat *Lur*, zentzu guztietan. Publiko guztiari ari zaio iristen, eta hori ederra ari da izaten.

**Obra ezagunenak horiek izan arren, Kamikaz kolektiboarekin beste hainbat lan egindakoa zara.**

**E.O.:** Kamikaz kolektiboak 2014an sortu genuen, Miren Gaztañagak, Amancay Gaztañagak eta hirurok. Ordutik proiektu batzuk sortu ditugu, eta horietako bat izan zen *Zulo* film laburra. Gehituen bidez enkarguz jasotako lan batekin gabiltza orain: *Käffka* izena du, eta nerabeen artean lesbianismoa ikusaraztea du helburu. Urtarrilaren 27an estreinatuko dugu Bilbon. Horrez gain, beste ideia batzuk baditugu buruan.

**'Goenkale'-n ere ateratakoak zarete biok. Nola gogoratzen duzue esperientzia?**

**G.E.:** Nik duela hamar urte parte hartu nuen telesailan, lau hilabe-



tez. Desberdina da telebistaren mundua, dena oso azkar joaten baita. Gutxiago goxatzen duzu pertsonaia antzerkian baino. Baina, aldi berean, esperientziarekin gustura gelditu nintzen, positiboa da mundu hori ezagutzea.

**E.O.:** Azkenean, gauza onak ateratzen dituzu bizipen hartatik. Gaur egun, nire bizitzan presente dauden lagun on batzuk ezagutu nituen *Goenkaleri* esker, eta hori hor gelditzen da. Baina bestalde, telebistan askotan txurroak egiten ariko balira bezala egiten da lan. *Goenkalen* nire sentipena bazen oso alper bilaka zaitezkeela; izan ere, dinamika batean sartzen zara, eta gutxieneko bat eginda baleko emaitza batera irits zaitezke. Oso azkarra eta gutxi mimatutako zerbait da telebista, hotza. Gaur egungo telebistaren egoerak pena ematen dit, ze uste dut badagoela talentua; jendea gogotsu

dago gauza berriak egiteko, baina apustu egitea falta da. Zer da telebista? *Go!azen?* Gustura egingo genuke telebistan lan, eta ez dago baldintzarik, ez produkturik, ez aukerarik... Pixka bat haserre nago gai horrekiko.

**Pantaila handian ere agertu zara Olaizola; besteak, beste, 'Los tontos y los estupidos' eta 'Oreina' filmetan. Zer nolako esperientzia bizi izan duzu zineman?**

**E.O.:** Esperientzia ederra bizi izan dut zineman. Egia esan, oso pozik nago bi film horien parte naizelako. Bietan pertsonaia txikiak izan ditut, baina politak, eta konektatu dut istorioarekin, lantaldearekin nahiz zuzendariarekin. Oso bereziak izan dira niretzat bi esperientzia horiek. Gero eta gehiago gustatzen zait zineman lan egitea.

**Ama ere hasi da mundu horretan murgiltzen; 'Korosa-**

**gasti' filmeko aktoreetako bat zara, Eizmendi. Zer moduz ari zara moldatzen?**

**G.E.:** Gustura nabil. Grabaketa batzuk egin ditut, eta ondo ari gara diote. Ni, behintzat, pozik ari naiz nire pertsonaia antzeztan. Jazintaren rola jokatzan dut, Korosagastiko krimena gertatzean bizirik gelditzen den alabetako batena.

**Olaizola aktorea zara lanbidez; horretatik bizi zara. Eizmendi, zu saiatu al zara inoiz gauza bera egiten?**

**G.E.:** Ez. Guk antzerki amateurra egin dugu. Gutako bakoitzak beti bere bidea egin du antzerkiaz aparte. Guk beste era batera egin dugu lan, lasaiago edo; izan ere, antzerkitik bizitzeko astebururo emanaldiren bat izan behar duzu, eta hori gaur egun zaila da.

**Olaizola, zuk afizioa ofizio bilakatzea lortu duzu.**

**E.O.:** Ez nuen egun batean eraba-

beste zerbait badaezpada, ni hau naiz, eta hau da nire apustua ehuneko ehunean. Horregatik, oso aurrera begiratzeko badut, batzuetan bertigoa sentitzen dut, ez dakidalako nire bizitzak zer norabide hartuko duen. Beraz, etorkizun motzean bizi naiz, ahalik eta presenteen bizitzaren saiatzen naiz. Egia esan, ez dakit beste era batera bizi ahalko nintzatekeen. Niri orain soldata finkodun bestelako lan bat eskainiz gero, ez ninduke asetuko; hori ez da nirea. Beti malabareak egiten bizi naiz, baina saiatzen naiz kexak edo frustrazioak gailendu ez daitezen.

### **Askoz erantzun negatiboak eman ohi dituzte kulturatik bizi diren gehienek.**

**E.O.:** Agian, bihar beste modu batera erantzungo nuke galdere bera, baina gaur, horrela pentsatzen dut. Dena den, gai batzuekin sortzen zait kezka: amatasunarekin, esaterako. Pentsatzen dut: "Ama izateko erabakia hartzen badut, zer gertatuko da nire lanarekin?". Nire kezka izan daiteke, ama izaten banaiz, zerbaiti uko egin beharko diodala. Agian hori ere sineskeria bat da, eta saiatu behar dut ez pentsatzen horrela izango dela. Nik alaba bezala sentitu izan dut, amak zerbaiti uko egin behar izan ziola, ni jaino nintzelako. Batzuetan sentitu dut goizegi etorri nintzela. Amaren ametsak zapuztu izanaren sentipena izan dut, kulpa sentipena.

**G.E.:** Nik hori behin ere ez dut pentsatu. Agian ez banintz ama hain garaiz izan, beste bide bat hartuko nukeen, baina ez daukat zerbait laga izanaren penarik. Berandu etorri da, baina izan dut nire aukera, eta oraindik badaukat denbora nire gustuko gauzak egiteko eta disfrutatzeke.

### **Zer miresten duzue elkarrengandik?**

**E.O.:** Ama bezala, niretzat izugarria da, beti hor egon delako. Edozer gauza duzula, beti: "Ama!". Eta ama beti hor. Duela gutxi gaixotu eta bere etxera joan nintzen, eta zer egiten duen ama batek bere

alabarengatik! Ez dakit ni horretarako gai izango ote nintzatekeen. Hori pila bat miresten dut.

**G.E.:** Hori sortu egiten da.

### **Eta zuk Eizmendi, zer miresten duzu alabarengandik?**

**G.E.:** Ikusten dut oso lagunen laguna dela, oso garbia dela. Badakit bere lagunei ez diela inoiz huts egingo. Laguntasun hori oso berreratuta dauka, eta hori mirestu egiten dut. Izan ere, askotan ez gara hain garbiak izaten. Beti doa aurpegia emanda bizitzan, lagunekin, etxean... Hori asko miresten dut. Eta antzezle bezala, gozatu egiten dut berari begira. Beti jakiten dut ondo egingo duela. Batzuek esaten dute: "Lasai egoten al zara alabari begira? Ez al duzu ondo egingo ote duen kezka izaten?". Batzuk urduri egoten dira, deskuidatu egingo ote den kezka. Baina nik badakit Erika deskuidatzen bada ere distira egingo duela.

### **Elkarrizketa hau antzerkia balitz, zer roletan jarriko zenukete elkar?**

**E.O.:** Emakume hauskor eta sentibera baten rolean jarriko nuke ama, ezetz esaten dakien emakume baten azalean. Amaren biguntasuna eta goxotasuna aterako lukeen pertsonaia bat aukeratu nuke.

**G.E.:** Nik bakarrizketa bat egiten ikusten dut Erika. Berak bizi dituen gauzak azaltzen, berak sentitzen dituenak, barruan dauzkanak... Iruditzen zait bakarrizketa polita egingo lukeela. Ordubeteko bakarrizketa indartsu bat izango litzateke.

**E.O.:** Noiz edo noiz pentsatu izan dut halako zerbait egitea. Ezer ez da kasualitatea, eta agian, elkarrizketa honetatik bakarrizketa bat aterako da, amari eskainiko diodana. Aitari ere musu bat bidali nahi diot, aita ere oso garrantzitsua delako. Badakit oso harro egoten dela nik egiten dudana ikusten. Aita agian bigarren plano batean egon da, baina berarengandik ere asko elikatu naiz. Eta ahizparengandik ere bai. ✘

## ||| **MOTZEAN** |||||

### **FILM BAT?**

**G.E.:** *E.T., el extraterrestre.*

**E.O.:** *Pesadilla antes de Navidad.*

### **ANTZEZLANIK GUSTUKOENA?**

**G.E.:** Xake Produkzioak konpainiaren *Lur*.

**E.O.:** Dejabu Panpin Laborategiaren *Gure bide galduak*.

### **AMETSIK BADUZU?**

**G.E.:** Ametsetan segitzea, bizirik nagoen seinale.

**E.O.:** Ametsak egi bihurtzea.

### **ZERK BELDURTZEN ZAITU?**

**G.E.:** Inguruko heriotzak.

**E.O.:** Amatasunak nire lanean eragin dezakeenak.

### **ZERK POZTEN DIZU EGUNA?**

**G.E.:** Gosari eder batek.

**E.O.:** Igorren "egun on" mezuak.

### **ETA ZERK GARRAZTEN DIZU?**

**G.E.:** Goizetan hartzen dudana limoi zukuak.

**E.O.:** Neure garraztasun propioak.

### **AKTORE BAT?**

**G.E.:** Meryl Streep.

**E.O.:** Cristoph Waltz.

### **ABESTIRIK GOGOKOENA?**

**G.E.:** Yanniren edozein.

**E.O.:** Queen taldearen *Bohemian Rhapsody*.

### **OBRA BATENGATIK INOIZ EGINGO EZ ZENUKEEN ZERBAIT?**

**G.E.:** Biluztu.

**E.O.:** Neure mugetatik haratagoko ezer ez nuke egingo. ✘

ki mundu honetatik bizi nahi nuela. Duela zazpi urteko lehen antzezan hartatik, mugimendua egon da; gauza batek bestera eraman nau, eta badaramatzat urte batzuk honetatik bizitzen, baina zerbait inkontzientea izan da. Eta azken boladan, zera pentsatzen dut: "Hau da nik egin dudana apustua". Badago zerbait esaten didana honetarako jaino naizela. Zerbaitek oso entxufatuta sentiarazten nau. Ederra da forma asko eduki ditzakeela ofizio honek: irakasle nahiz aktore izan zaitezke, besteentzako lan egin dezakezu, zineman partetxo bat... Eta hori gauza ederra da.

### **Dena ez da hain polita izan-go.**

**E.O.:** Batzuetan beldurrak etortzen zaizkit, noski. Izan ere, aurrera begiratzeko badut, eta konturatzen naiz nire karta guztiak hemen daudela. Ni ez naiz irakaslea edo

# Elkarrekin hezi

Azpeitia Herri Hezitzailea izan dadin hausnartzen aritu dira herriko dozenaka eragile. Ondorioztatu dute taldeen jardunak eragina duela heziketan. 📌📍 Maialen Etxaniz

**N**olakoa da Euskal Herrian dagoen eta hezitzailea den herri bat? Zein balio ditu oinarrian? Oinherri Euskal Herriko Herri Hezitzaileen Sareak zehaztu ditu galdera horien erantzunak, eta gaur egun herri herri dabil bere ideiak zabaltzen. Oinherri zapaldu dituen geltokien artean dago Azpeitia. Eragile horren arabera, Euskal Herriko Herri Hezitzaile batek oinarrian ditu aniztasuna, euskara, parekidetasuna, zaintza, partehartzea, elkarlana, auzolana, komunitate sentimendua eta herriko kultur nahiz ingurumen ondarearekiko zaintza eta babes. Zoru horren gainean lan eginda lortzen da Herri Hezitzailearen izaera. Baina, ba al dakigu zein balore sustatzen diren Azpeitian? Galdera hori erantzuteaz arduratu dira herriko hezkuntza eragileak eta Azpeitiko Herri Hezitzailearen talde motorra azken hilabeteotan. Talde eragileko kidea da Maite Azpiazu (Azpeitia, 1983).

Herri Hezitzailearen egitasmoak iaz egin zituen lehen urratsak Azpeitian, herriko hainbat eragilerekin egindako jardunaldi batean, hain zuzen. Saio hura izan zen egitasmoaren abiapuntua. "Oinherriren filosofia zein den herriratzeko asmotan, jardunaldi irekiak egin genituen Sanagustin kulturgunean. Bertan, gure aburuz hezitzaileak diren taldeetako ki-deek beren esperientziak azaldu zituzten herritarren aurrean. Aurkezpenak amaitzean, agerian gelditu zen Azpeitiko eragileek sus-



Herri Hezitzailearen talde eragileko hainbat lagun. || Maialen Etxaniz



tatzen dituzten balioak identifikatzeko beharra”, kontatu du Azpiatzuk. Behar horretatik abiatuta, hezkuntza eragileen balioen inguruko diagnostiko bat osatzen aritu da egitasmoaren talde motorra urte osoan zehar.

Diagnostikoa osatzeko hiru lan eremu aztertu dituztela azaldu du Azpiatzuk: hezkuntza arautua zein ez arautua, Udala –bertan lan egiten duten teknikoak eta zinegotziak– eta herrigintzan aritzen diren elkarte zein eragileak. Hark azaldu duenez, metodologi ezberdinak erabili dituzte hiru eremu horietan nagusitzen diren balioak identifikatzeko. “Herrigintzako eta hezkuntzako eragileen jarduna aztertzeko galdetegi bat prestatu genuen, Elhuyar aholkularitza zerbitzuaren laguntzaz. Galdetegiaren gainean ekarpenak egiteko tarte eskaini genien eragileei, eta alaketak egin ostean, adostutako behin-betiko galdetegia erantzun zuten. Orotara, 81 galdetegi banatu genituen eragileen artean, eta horietatik 52 jaso genituen beteta”, azaldu du Azpiatzuk. Udalaren diagnostikoa elkarriketa bidez egin dute. Hau da, Udaleko zi-

negotzietan eta teknikarier egindako banakako elkarrizketak izan dira erakundeak sustatzen dituen balioak ezagutzeko iturriak.

Ekainera bitartean jasotako erantzunak laburtzeko txostenak prestatu zituen Herri Hezitzaileen talde eragileak, arloka. Behin txostenak eginda, jasotako datuak elkarbanatu zituzten Herri Hezitzaileen egitasmoa batutako eragileekin. Horretarako, kontraste saioak egin zituzten, arloz arlo.

### Hausnarketaren emaitzak

Arlokako kontraste saioetan jasotako ondorioak elkarbanatzeko jardunaldi irekiak egin zituzten joan den abenduaren 1ean. Han plazaratu zituzten hilabeteetan zehar egindako azterketaren lehen ondorioak. Azpiatzuren hitzetan, jardunaldiak nahiz kontraste saioak “parte-hartzaileak” izan ziren.

Diagnostikoaren arabera, herriko eragile gehienek honako balio hauek hartzen dituzte kontuan bereziki: herritarren parte-hartzea edo ahalduzkoa, euskararen sustapena, parekidetasuna, aniztasuna eta integrazioa. Eragileen aburuz, Azpeitia “herri bizia” da, eta eragileek elkarren berri dute. Dena den, boluntarioen parte-hartzea jaisten ari da talde ia guztietan. Ondare kulturalak globalizazioaren eragina jaso duela uste dute herriko eragileek. Hala ere, euskarak babes soziala duela ondorioztatu du Herri Hezitzaileen diagnosiak. Horren arrazoietakoa bat euskara sustatzeko dauden baliabideak izan daitezkeela aipatu dute taldeek. Izan ere, “euskara indartzeko baliabideak eta egiturak” badaudela diote. Era berean, kultur ekintzen “saturazioa” identifikatu dute herriko eragileek, eta agenda bateratu baten beharra ere aipatu dute.

Galdetegia erantzun duten eragileen erdiek beren ekintzak antolatzean kontuan hartzen dute parekidetasuna. Dena den, diagnostikoak dio emakumeen parte-hartzea “baxua” dela kirol ekintzetan nahiz zuzendaritza organoetan, eta kirol klubetan egiten den heziketa lanaren kontzientzia oso baxua dela. Klubetan artean elkarlana falta dela ondorioztatu dute kirol taldeek, baina positiboki nabarmendu dute lanerako boluntario asko daudela elkarteetan.

Emakumeen Txokoa adin zein jatorri ezberdinetako emakumeengana iristen da Herri Hezitzaileen ondorioetan jaso dutenez. Parekidetasuna sustatzeko aurrekontua asko hazi da azken urteetan, eta indarkeria matxistaren inguruan herritarrek kontzientzia hartu dutela uste dute eragileek.

Herri Hezitzaileen talde eragileak udalaren “prestatutasuna” azpimarratu du: “Erakundeak jarritako baliabiderik gabe ez zen posible izango gauzatu dugun azterketa egitea”.

### Eta orain, zer?

Taldeetan zein balio sustatzen diren ezagutu ta, herri hezitzailea izatera bidean egin beharreko urratsak eta erronkak zehaztu dituzte dagoeneko. Arloz arlo, hainbat erronka identifikatu dituzte. Euskarari dagokionez, euskara ez dakitenak eta jatorri desberdinetakoak diren lagunak euskarara hurbiltzea eta belaunaldi berriei euskararen garrantziaren kontzientzia transmititzea jarri dute erronka gisa.

Parekidetasunean eta zaintzan, aldiz, helburu moduan jarri dute Emakumeen Mahaiaik eta herriko eragileek elkarlan iraunkorra izatea, baita eragileak parekidetasunean jantzea ere. Horretarako, parekidetasuna sustatzeko tresnak sortu nahi dituzte, eta horiek herritarren eskura jarri. Horren xedea da diskurtsotik praktikarako jauzia egiten laguntzea. Halaber, emakumeen parte hartzea sustatu nahi dute kirol arloan.

Kultur arloan beste erronka batzuk zehaztu dituzte. Esaterako, kultur dinamikan jatorri desberdinetako pertsonen partaidetza sustatu nahi dute. Era berean, belaunaldi berriekin loturak egitea eta agenda bateratua osatzea dira ezarritako erronkak. Erreferentzialtasuna eta komunikazioa lantzea ere garrantzikoak direla uste dute herriko kultur taldeek. Kirol klubetan, berriz, elkarlana eta inklusibitatea lantzea –jatorria edota aniztasun funtzionala– dute xede. Gainera, nahi dutena da kirol klubetan arteko elkarlana lantzea eta eskola kirolean sortzen diren zailtasunak eta desorekak gainditzea.

Azpiatzuk azpimarratu du diagnostikoa egitearen alde positiboena eragileak hausnarketara gonbidatu izana dela: “Taldeenak kirolek sarridan aipatu digute inoiz ez dutela pentsatu beren jardunarekin heziketa eredu bat sustatzen dutenik. Egiten den gauza bakoitza, izan kirolean, izan hezkuntzan, izan kulturaren, tresna bat da balio batzuk edo beste batzuk sustatzeko. Horregatik, oso aberasgarria izan da herritarrek pentsatzen jarzea eta elkarrekin ondorioak ateratzea”.

“Denok antzerako balioak sustatu nahi ditugula ondorioztatu dugu orain arte egindako urratsekin, eta zehaztutako balio horiek bat datoz Herri Hezitzaileak barnebiltzen dituenekin. Eragileak saretuz gero eta elkarrekin lan eginez gero, indarrak biderkatuko ditugu Azpeitia herri hezitzailea izateko bidean”.\*



# Iratiko Robinson Crusoe (II)

**A**urreko atalean –*Irati: hain hurbil, hain urrun*–, Iratin igarotako istorio bat ezagutzen nuela nioen. Istorio bitxi bezain interesgarria, Pellok bizi izan zuena, gure Robin partikularrak.

Horrela kontaktzen du berak: “Obreeran –gaur egungo Lan Mobil– egiten nian lan, eta lan eta diru arazorik ez nian. Baina barruak, erraiak, ez nitian gustura. Nazkatuta eguneroko errutinarekin. Ze irtenbide daukat nik? Etengabeko borroka nire buruarekin, etengabekoa. Erabakia hartu aurretik, ordea, zenbat zalantza, zenbat buru-jate, zenbat galdera. ‘Potroik’ izango diat urtebete irauteko basoan?”.

Duela ia lau hamarkada jazotako kontua da. Udazkenetik udara, Iratiko basoan egon zen bakartua, esperientzia pentsa ezina dena edonorentzat.

–Baina, justu Iratira joateko arrazoia?

–Basoa, mendia, natura... zorientasunarekin lotzen nitian, dizkiat. Asetuta sentitu nauk beti. Alde batetik, abentura bat bizitzeko gogo, grina. Bestetik, erronka bat huan neure buruarekiko. Garaioako apaizak, Koldok, txabola bilatzen lagundu zldaan. Euskararen eta bailarako etorkizunaren alde lan asko egiten zian. Hark aholkatuta, Guardia Zibilaren koartelera hurbildu ninduan, nire asmoen parte ematera.

Beste garai batzuk ziren. Sorbaldetan urte batzuk ditugunok badakigu ‘España’ eta ‘Francia’ arteko muga inguruak zer arrisku zuen. Eta Peloren txabola mugan berbertan zegoen. Orbaizetatik bederatzik kilometrora, 225 mugarri famatuaren ondoan, baso-basoan.

## Artzainak, “aktore printzipalenak”

“Zenbat mugalarik erabili ote zuten eremu hura...”, dio Pellok.

Kontua da, momentuan ez, baina hurrengo egunean brigada txabolarara joan zitzaioela, bai-menarekin. Tarteka-marteka patruilaren bisi-



||||||| **luis gurrutxaga** |||||

||| Sorbaldetan urte batzuk ditugunok badakigu ‘España’ eta ‘Francia’ arteko muga inguruak zer arrisku zuen

ta nozitzen zuen, eta Pellok, maltzurkeria pittin batez, ateratako argazkiak zintzilikatuta zituen ikusgai, beha eta froga zezaten, aitor-tutakoa egiten ari zela: lau urtaroretan atera argazkiak, eta gero ikus-entzunezko ekoizpena egin, hainbat antzoki edo forotan erakusteko.

–Eta urtebete horretan, ingurukoekin harremanak izango hituan, bada?

–Begira, nik basoa asko baloratzen diat. Eta baloratzen ditiat izugarri, baita ere, handik bizi direnak, han lana egiten dutenak. Zentzu horretan, niretzat artzainak aktore printzipalenak dituk.

Harreman guztiz interesgarriak eta xarmangarriak bizi izan zituen Pellok. Artzainak, basozainak, urtegiko arduraduna, Orbaizetako ola zaharreko familia –tragedia beldurgarriak hain zuzen jo zuena, Pellok ezagutu eta lau urtera–... Denak zituen, ditu, gogoko.

Kontaktak, ordea, hurrengoan jarraitu beharko.

Ene bada, ia abizenaz ahaztu! Arenas, Pello Arenas, bai, geroztik Xoxoteko aterpetxean hainbat urtetan arduraduna izana eta gaur egun erretiroa hartua, Loiolako parkean ikusten duguna pasiatzen, Axun bikotekidea lagun duela. Pello *Robin* Arenas eta Irati.\*



# Gu Geu izateko bidea



IRAURGI  
ikastetxea

## 2

2018ko apirilaren 8an, Iraurgi Ikastetxea osatzen dugunok urte luzeetan amestutako kabia estreinatzeko aukera izan genuen. Betharrameko eraikin zaharra, 0-12 urte bitarteko ikasle guztiak biltzen dituena, guztiz eraberrituta, etapa berri baten hasiera bilakatu zen.

Eraberritzeko prozesu horretan gauza bat garbi izan dugu: azken ikasturteetan Iraurgin egiten ari garen aldaketa metodologikoa posible izateko moduan antolatu ditugu espazioak eta era horretara hornitu ditugu guneak. Egitura zabal eta aldi berean goxoak sortzea izan da helburu nagusienetako bat, ikasleak ikastetxera joatean etxean bezala senti daitezen, batez ere, eskolatzeko lehen urteetan. Familia eta eskola bat eginda aritzeak duen garrantziaz jabetuta, etxekotasuna bultzatu nahi dugu.

Haurrak gelaraino eramateko edo handik jasotzeko momentuak nahiz sarrera-irteera uneak goxagoak bilakatzeaz gain, familiengana gerturatzeko gaitu eraikin berriak, konfiantzazko harreman zuzena erakitze bidea ezarrita. Gainera, gertuko harreman horri Batxilergo arte ematen diogu jarraipena. Ikaslearen hezkuntza ibilbidearen urratsak txiki-txikitatik emozioak kontuan hartuta finkatzen ditugu. Hori horrela izan dadin, irakasleok Roberto Aguado psikologo eta Vinculacion Emocional Consciente pedagogiaren sortzailearekin etengabeko formazioan ari gara. Bizikidetzako arazoak konpontzeko trebatzea helburu duen GuGeu programan murgilduta gaude. Ez dago emozio onik edo txarrik, guztiak dira garrantzitsuak eta baliagarriak, eta emozioen erregulazio egokia sustatzeko ahaleginean ari gara.




Lan metodologiari dagokionez, adimen anitzetan oinarritutako heziketa bultzatzera bideratuta daude ikastetxeko espazioak. Iraurgin, ikaslea bere osotasunean kontuan hartzen eta baloratzen dugu. Horretarako, Haur Eskolako geletan, ikaskuntza, jolasa eta garapen psikomotorea uztartzen dituzten egurrezko espazioak ditugu. Haur Hezkuntzan mailaka lan egiten da, txoko desberdinez hornitutako gela zabaletan. Lehen Hezkuntzan ere, espazioen antolaketak proiektu interdiziplinarren lanketa errazten du. Hainbat ikasgai uztartuz lan egiteak edukien ikaskuntza bizitzarako tresna bilakatzen du. DBHn, berriz, askotariko proiektuak lantzeaz gain, Lehen Hezkuntzatik datorkigun 1&1 programa ere zabaltzen ari gara. Azkenik, Batxilergoan lan egiteko modua gerora beharko dituzten gaitasunak lantzerantz bideratzen dugu, beti ere modu pertsonalizatuan orientatuz.

Iraurgin pertsona dugu ardatz, eta espazio eta metodologia berritzaileenak gure egunerokotasunean ditugula, ikaslearen garapen eta ikaskuntza prozesuan Gu Geu izateko bidelagun gaituzte eta izango gaituzte.



# Rocka, urtea hasteko

Willis Drummond Baionako taldeak eta Delient Azkoiti-Azpeitiko bandak kontzertua eskainiko dute urtarrilaren 12an, zapatuan, Sanagustin kulturgunean. Sarrerak salgai daude aurrez.  Ane Olaizola

**S**anagustin kulturgunean rock doinu biziek inkingo 2019. urteari. Willis Drummond talde beteranoa eta Delient hasiberria zuzeneko indartsuak eskaintzeko asmoz igoko dira hango taula gainera, eta askotariko doinuez asetuko dituzte hara bertatzen diren herritarrak.

Ipar Euskal Herriko taldea hirukote gisa itzuliko da Sanagustineran. Jatorrira egin du jauzi Baionako taldeak, eta azken urteetan laukote zein boskote izan ostean, hiruko bihurtu dira berriz. Gainera, beren azken lana eskuetan dutela etorriko dira Azpeitira. Izan ere, *Willis drummond LIVE* diskoa eta DVDa kaleratu ditu bandak, eta lan berriaren aurkezpen biraren lehenengotako emanaldia izango da herrian emango duena.

*Gurea Tokiak Tour* bira amaitu berrikan, joan zen urria grabatu zuten diskoa, Donostiako Intxaurrondo auzoko Kultur Etxean eskaini zuten kontzertuan. Taldeak kalean dituen estudioko bost diskoetako abestiek osatzen dute azken lana, eta kontzertu hartako irudiekin osatu dute DVDa ere.

Baionako taldearen aurretik, Delient Azkoiti-Azpeitiko taldeak kontzertua eskainiko du. Aurretik Mondacane, Ezinean edota Neu taldeetan ibili ondoren, iaz sortu

## III DATUAK

III **Zer.** Willis Drummond eta Delient taldeen kontzertuak.  
III **Eguna.** Urtarrilak 12 (zapatua). III **Ordua.** 23:00  
III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea  
III **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

## III DATUA

**2.** aldiz **Sanagustinen.** Bigarren aldiz igoko dira Delient taldeko musikariak Sanagustingo oholtza gainera. Iazko azaroan jo zuten lehenengoz herrian, Arkupehotsak egitasmoaren barruan.✘



Willis Drummond taldea. III Willis Drummond

zuten banda Haritz Amezuak, Iñaki Odriozolak, Ibai Blankok eta Oihan Amezuak. Doom zein stoner gordina oinarri dute abestiek, baina ez die muzin egiten metalarri eta psikodeliari. Hainbat hilabetez agertokietatik at egon ostean itzuliko dira zuzenekoetara.

Kontzertuetara joateko sarrerak aurrez eros daitezke 12 eurotan, Sanagustin kulturgunean edo *Kulturaz.eus* atarian.✘

## III BESTERIK

### 1 Bandaren kontzertua

2019ari ongi etorria egiteko, Errege Egunean kontzertua emango du Musika Bandak.  
III **Eguna.** Urtarrilak 6 (igandea).  
III **Ordua.** 13:00 III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea.  
III **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

### 2 San Sebastian jaia

Bi egunetz danbor hotsez girotuko dituzte umeez zein helduek herriko kaleak.  
III **Eguna.** Urtarrilak 19 eta 20 (zapatua eta igandea). III **Tokia.** Kaleetan. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

### 3 'TRANS sexualitateak' liburuxkaren aurkezpena

Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek kaleratu dute lana, hezkuntza praktika feminista sustatzeko.  
III **Eguna.** Urtarrilak 30 (asteazkena). III **Ordua.** 18:00  
III **Tokia.** Emakumeen Txokoa.  
III **Antolatzailea.** Emakumeen Txokoa.

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)

**Koh Tao**  
OSAGARRIAK  
Foru ibilidag. 3 • Tel: 609 648 193  
20720 AZPEITIA (Gizakoa)

ostadar optika  
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS  
Jose de Arce, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Iñaki Ondo, 28  
Tel. 943-851445  
AZKOITIA

Xabier margoak  
Pinturak eta Parket Laminatuak   
Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - [www.xabiermagoak.com](http://www.xabiermagoak.com)

Maite Muguruza logopeda



# Erronkari heltzeko prest


**M**aite Muguruzak 29 urte ditu, eta duela gutxi, logopedia zentroa zabaldu du Azpeitian, Ildefonso Gurrutxaga kaleko 7. zenbakian. Bertan, haurrek nahiz helduek hizkuntzarekin ager ditzaketen arazoak prebenitu, diagnostikatu eta tratatzen ditu, hala nola ahotsa, hitz egitea edo hartutako kalte zerebrala.

Orain gutxi arte ikasten aritu da Muguruza. Guztira, hiru unibertsitateko titulu dauzka. Baxilergoko ikasketak Azpeitiko Ikastola Ikasberriin egin ostean, oso garbi zuen umeekin lotutako zerbait egitea nahi zuela, eta lehenik, Magisteritza ikasi zuen, LHko hurrei zuzenduta. Haren anaiak behar bereziak ditu, eta etxean bizi izan duenak ikasketak eremu horretara bideratzeko gogo sortu zuen harengan. Hori dela eta, Hezkuntza Berezian espezializatu zen. Ondoren, berriz, Haur Hezkuntzako gradua egin zuen.

Hezkuntzako ikasketak amaitzean, beste zerbait egitea pentsatu zuen. Beti izan du Logopedia ikasteko gogo, eta Salamancara joan zen ikasketa horiek egitera. Amaitu du gradu hori, eta orain, etapa berri bati ekin dio: bere logopedia zentroa zabaldu du. Ilusioz dago, jendea-ri laguntzeko gogoz.



||| **HITZ GEZIDUNAK** |||||

	Umore handiko	▼		Deitura	▼		Alkate, mera	▼		Saharako herritarrak	▼		Gorotza
	Armiarma sareak			Oinaze eman			Duela 24 ordu			Nitrogenoa			
		▶			▼			▼			▼		
	Izena	▶								Hektarea, labur-labur	▶		
										Urtaro hotza			
Landare mota	▼		Etzanaraziak	▶	▼								
Dantza artistiko			Itsas arrain										
▶		▼					Musika lan mota	▶					
							Guraso arrak						
Irakurria	▶							▼	Nafarroako ibaia	▶			Atomo kargaduna
Umorezko kolpe									Kuota, tarifa				
▶													
			Sufrea	▶		Ihes egin	▶						
			Dozena erdi			Antimonioa							
Sastien fruitua	▶			▼						Garai, aldi	▶		
Daukate										Artsenikoa			
▶						Basatia	▶				▼	Atx!	▶
						Bokal biribila						Bokala	
Ekintza gaitzes-garria	▶						▼	Jaka modukoa	▶				

 **Egilea: Luma**

\* Azpeitiko Kultur Mahaiaren Lehendakaria

||| **SUDOKUA** |||||

	8							2
		1	4	7				5
2		3		5	1			
	4					6		5
		9				3		
8		5						1
			6	8		5		1
	2			9	5	4		
4								6



**Partigiano**  
DENDA BERRIA  
SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

**HITZ GURUTZATUAK**

**Ezker eskuin**

1. Kutsurik ez duena. 2. Azkoitiko kirol elkarte. 3. Gure herriko antzerki taldea. Kontsonantea. 4. ... izan, zain edo aiduru egon. Errepikatuz, fruitu tropikala. Suari dario. 5. Itsasbazerreko hegaztia. Haize oihala. 6. Intsektu bizkarroia, kaparra. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzezten duen zati. 7. Kontsonantea. Bokalik gabeko kanoa. Apustu, trabes. 8. Kasik. Emea gurasoekiko. Bokala. 9. Aiako auzoa. Musika nota, eskalan seigarrena. Hauek ez dira baserritarrak, eta menditarrak ere ez.

**Goitik behera**

1. Berritsuak, hitzontziak. 2. Behizainak. Edo. 3. Zapata orpoak. Talioaren ikur kimikoa. 4. Titulu ingeles. Min. 5. Ospa! Utik! Frantziako hego-mendebaldeko departamentua. 6. Hala esaten diote iparraldean ateak irekitzeko tresnari. Xumea, umila. 7. Aurretik 'k' bat idatzita, kontuz! Boroa balio du. Zuhaitzaren enborretik ateratzen den beso bakoitza. 8. Bonbetatik babesteko lurpean egiten den eraikuntza berezia. Kontsonantea. 9. Noren deklinabide kasuaren atzizkia. Gizon izena. Lantanoaren ikur kimikoa. 10. Suitzako ibaia. Pluralean, landare mota, zumintza.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3									■	
4				■			■			■
5						■				
6							■			
7		■			■					
8			■						■	
9								■		
10										

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK  
 BIDALTZEKO EPEA. Urtarrilak 22 (asteartea) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

▲	K	▲	S	▲	K	●	O	I	Z	▲	●
I	▲	●	▲	S	▲	B	●	E	L	U	D
O	R	▲	●	▲	L	S	U	S	▲	M	●
I	R	U	Z	T	I	●	S	●	G	▲	G
●	▲	G	E	●	▲	U	T	I	E	L	●
▲	R	▲	P	O	●	T	E	L	L	▲	B
K	▲	N	▲	Z	T	▲	R	E	●	K	●
▲	H	●	Z	T	▲	L	O	●			
●	▲	N	▲	U	▲	R	▲	M	▲		
●	S	●	▲	●	P	●	U	●			

SUDOKUA

9	6	7	3	1	3	2	1	8	2	1	5	4	8	5	4
8	3	8	4	3	6	7	9	5	4	3	8	1	2	6	7
1	7	2	1	7	8	3	5	9	4	6	2	1	7	3	9
4	8	4	3	8	4	6	1	9	5	2	7	3	8	4	6
5	5	9	5	5	2	1	3	8	6	9	5	7	4	2	1
6	4	6	2	7	3	8	5	1	9	4	6	2	7	3	8
3	3	5	3	8	5	1	9	4	7	2	8	5	3	9	6
2	2	8	5	3	8	5	1	9	4	7	2	8	5	3	9
7	2	1	7	2	1	8	5	3	6	9	1	7	2	8	5

||| UZTARRIAREN ABENDUKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA




Maria Luisa Garmendia Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 112. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

**Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpiko Iberikoa**

Eñaut: 656 79 14 19  
 Oier: 618 24 01 73  
 kutxillo@gmail.com  
 Damaso Azkue 6

## BIDEOA



## ▲ RO TALDEAK HASI DU BIDEA.

Joan den abenduaren 8an kontzertua eman zuen Ro musika taldeak Sanagustin kulturgunean. Zuzeneko emanaldiaren aurretik, Ro taldeko kideak solasean aritu ziren Uztarrria Komunikazio Taldearekin, 'Urola Kostako Hitza'-rekin eta Kulturaz kooperatibarekin, 'Mikrouhinak' bideo sortarako. Postrockaren eta rock esperimentalaren bueltan, Azkoitiko Matadeixen jaio zen Ro taldea, eta Iker Amenabar azpeitiarrak eta Gorka Alcalde, Josu Usobiaga, Iñigo Gonzalez eta Mikel Iraeta azkoitiarrak osatzen dute. Haiek azaldu dutenez, musika taldearen ibilbidea hasi besterik ez da egin, baina orain arte jaso duten harrera "ezin hobea" izan da. Andoingo eta Zestoako gaztetxeetan kontzertu bana eman ostean iritsi ziren Sanagustinerara, eta "oraingo" kontzertuak ematea eta horietaz gozatzea da nahi dutena. Eta izango dute horretarako aukera; izan ere, 2018ko Kutxa Kultur Musika egonaldi programan parte hartzeko hautatu dute Ro, eta horri esker laguntza ekonomikoa eta praktikoa jasoko du taldeak. Aurten 66 talde aurkeztu dira programara, eta horietatik seik jasoko dute egonaldi artistikoa egiteko sostengua.

## EFEMERIDEAK

1568

**Ogiaren prezioa, behera.** Ikusirik nahiko modu egokian iristen zela garia herrira, ogiaren prezioa jaistearen erabaki zuten agintariek.

1860

**Soldadu Afrikara.** Herriak ordainduta, Afrikako gerrarako soldaduen zerrenda osatu zutenen izenak jakinarazi zituen alkateak.

1986

**'Soreasuko Sebastian'.** Jose Luis Frantzesenak sortutako 'Soreasuko Sebastian' doinua estreinatu zuten helduen danborradan.

2005

**Biribilgune berria.** Sanjuandegiko errotonda inauguratu zuten urte hartako urtarrilaren 26an.

**Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinakundea.\*





# Almidoi iraunkorra

## ITZIAR LARREA jostailu saltzailea

**L**andareek almidoi moduan gordetzen dute duten energia. Patata, batata, arroza edo hainbat zereal prestatzen ditugunean, almidoi hori eraldatu egiten da eta oso bioerabilgarri bihurtzen da.

Gure entzimek erraz dijeritzen dute almidoia, eta zelulak berehala baliatzen dira horretaz. Prestatu berriak diren patata, arroza, oloa... almidoiz beterik izaten dira, eta gorputzak oso erraz xurgatzen ditu. Dena den, hori aldatu egiten da jakiak hozten baditugu. Egitura zeharo eraldatzen zaie eta digestio prozesua oztopatzen duen almidoia eratzen da. Ondorioz, entzimak ez dira gai almidoia dijeritzeko (glukosa puskatzeko), eta gure heste-mikrobioentzat erabilgarri gelditzen da.

Almidoi iraunkorrak prebiotiko moduan jokatu du. Fermentatzerakoan gas eta gantz azido desberdinak sortzen dira; butiratoa da horietako bat (funtzio antiinflamatorioa du). Egun dibiosis gaixotasuna asko ugari da, butiratoa sortzen duten bakteriak galdu direlako eta almidoi iraunkorrak bakteria hori gehitu dezakeelako. Gehiegizko pisu eta gizentasun kasuetan garrantzia handia du horrek, inflamazio kronikoarekin lotuta dauden patologiak baitira. Almidoi iraunkorrak butiratoa sortzen laguntzen du, funtzio antiinflamatorioak dituen azidoa baita.\*



### 1. Aurtengo jostailu izarra?

Egurrezko eraikuntza jostailuak eta patineteak.

### 2. Inoiz oparituko ez zenukeen jostailurik?

Umearen garapenari dagokion sasoiaren araberakoa da hori.

### 3. Asko aldatu al dira jostailuak?

Teknologia bideratutako jostailuak areagotu dira.

### 4. Jostailuak, hezteko ala ondo pasatzeko?

Umeek, ondo pasatzen duten bitartean ikasten badute, askoz hobe.

### 5. Nolakoak izan behar dute jostailuek?

Kalitatezkoak, seguruak eta iraunkorrak.

### 6. Badaude genero estereotipoak?

Askok sexuaren arabera egiten dituzte opariak.\*

Ane Olaizola

aitziber aizpuru

**IRENE ALTUNA**  
LOIOLANDA  
Loiolas Bide, 26 Tel: 943 81 51 87  
www.iritanacorda.com

**AZKOITIA**  
ERLOJU KONPONKETAK  
Aranza, 5 AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA  
Euzkadi Herria, 34 20730 AZPEITIA Tel: 943 15 10 40  
Larrietakoak: 943 10 10 40

**Alar**  
merceria  
Lariolako Traxo II bidea, 9 Tel: 948 81 87 78

**EREGI**  
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA  
SORMENETIK eta EUSKARATIK KOMUNIKAZIO KULTURA ERAIKITZEN  
www.eregi.eus

**uba**  
KONSUMATIBOAK  
Kontsumatiboak, Flakela, Laboratu, Sarrakelak  
Gestioari Jarabak  
Finanzen administrazioak, Gestio Inmobiliarioak  
Tel: 943 151 222 Fax: 943 151 272  
Euzkadi Herria, 42 • 20730 Azpeitia

**KIRURI**  
JATETXEA  
Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Tfn: 943 81 00 88  
Fax: 943 15 03 82

**adi**  
ARTEA DISENU ESKOLA ELKARTEA  
Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00  
Pintura 18:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30  
Talla 18:30 - 20:00  
Jose Antonio kalea, 3 943 81 28 08  
ar@adibizkaia.com  
Matrikula arte osoan zabalik

# Errutina plazera denean

Lanak eta futbolak betetzen eta asetzen dute Sanjuandegiko danborradaren taldeko zuzendari denaren egunerokoa. 📧 Mailo Oiarzabal

**S**an Sebastian bezperan, hogeita zotzigarren aldiz irtengo da danborradan Sanjuandegiko taldea zuzentzen Manuel Garcia Mane (Urrestilla, 1961). 1992tik, "hutsik egin gabe" parte hartu izan du urtarrilaren 19ko festan. Gaur egun, danborradako zuzendari beteranoenetakoa da. "Ez daukat uzteko batere intenziorik, Kanpaxaren marka haustea nahi dut!", bota du, barrez.

Esan gabe doa, Maneri danborrada "izugarri gustatzen" zaio. "Txikitan, oiloipurdia jartzen zitzaidan handiak danborra jotzen ikusten nituenean, egundokoa izaten zen niretzat". Inondik espero ez zuena zen, ordea, Sanjuandegiko lagunekin taldea ateratzea lortu zutenean, zuzendari aritzea berari tokatuko zitzaiola. Taldeko arduradun izendatua zutenak eskatu –edo agindu– zion zuzendari izatea. "Eta nik ezetz, ezta pentsatu ere! Ni, zuzendari? Taldean bazegoen-eta bandan zebilen jendea, solfeoa zekiena. Baina, zuzendaria ni izan behar nintzela, ikasiko nuela. Larritu egin nintzen, ideiarik ez neukan eta! Schubertekin [Jose Luis Frantsesena] hitz egin nuen eta hark lagundu zidan. Horrela, etxean entseatuz eta entseatuz, eta zalantza-

ren bat nuenean Schubertengana joz, ikasten joan nintzen. Baina a zer gauak bota nituen, ohera joan eta han ere piezekin bueltaka!", gogoratu du.

Zuzendari lanetan majo zaildua egon arren, sansebastianak hurreratzen ari diren heinean "urdu" jartzen dela aitortu du. "Badakizkit piezak, noski dakizkidala, baina beti gustatzen zait errepasatzen joatea, entseguak iristen direnean prestatuta egoteko. Danborrada barruan daramadan zerbait da, bizi egiten dut. Hori, eta futbola".

## Garmendipen edo lantokian

Futbola, nola ez. Umetan lagunekin hasi, Lagun Onaken zortzi urtez aritu eta belauneko arazok federatutako futbola 22 urterekin uztera eraman bazuten ere, inoiz ez du eten futbolarekin, Lagun Onakekin eta Garmendiperekin lotzen duen zilbor hestea.

Danborradan zuzendari izatera nola, futboleant atezain izatera ere halabeharrek eraman zuen Mane. 11 urtera arte, garai hartan ohi-koak ziren lagunarteko txapelketetan kuadrillakoekin jokatzen zuenean, aurrelaria zen. Zoritxarreko gertaera batek ekarri zion aldaketa: "Gure taldeko atezaina zena hil egin



zen, buruko isuri batekin; Sanjuandegiko eskola Petrarren seme zaharrena zen, Pedro Luis". Azkoitiko Profesionalean txapelketa ari ziren jokatzen, atezaina behar zuen taldeak, eta Manek, gazteenak, hartu zuen postua. "Taldekideek jarraitzera animatu ninduten eta neuri ere gustatu egin zitzaidan. Beti egoten nintzen urratuz beteta, baina ez zidan penarik eman aurrean jokatzeari uzteak".

14 urte zituela fitxatu zuen Lagun Onakek eta 17rekin debutatu zuen Hirugarren Mailan. Lagun Onaken jokatutako urteetako "oroitzapen ederrak" ditu. "Ume bat nintzen eta gozatu egiten nuen garai hartako taldekide beteranoekin. Atxuiya, Martxialito, Tximist, Pipillo... aitaren parekoak ziren niretzat. Talde bikaina zen, izugarri estimatzen ditut



Manuel Garcia 'Mane' Garmendipeko zelaian, etxetik gertuko bigarren etxean. |||Mailo Oiarzabal

orduko taldekideak". Jokalari izateari utzi arren, Lagun Onaken jarraitu zuen: "Eta hor jarraitzen dut, behar den edozertarako". Gaztetxoekin lan egitea da gehien betetzen duena, baina iraungitze datadun lana da berareztat: "12 urteren bueltara iristen diren artean, gozamen hutsa da niretzat haiekin ari-

tzea. Gero, ja, ez". Etsipen puntua nabari zaio bera Lagun Onakera iritsi zen adin beretsua duten gaur egungo futbolari gazteez hitz egiterakoan. "Gazteek ez dute entrenatu nahi, partidak jokatzeari besterik ez dute nahi", dio.

Eguneroko errutinan moldatzen da ondoren Mane, hala dio berak: "Oporretan neka-

tuago egoten naiz, lanean nabileanean baino. Jendeak esaten dit zoratuta nagoela, baina niri gustatu egiten zait egunero lanera joatea". Bere bila dabilenak galbide handirik ez du: "Tailerrean ez banago, futbol zelaian; eta futbol zelaian ez banago, tailerrean". Eta San Sebastian bezperan, danborradan.\*



1. Danborrada zuzentzen. 2. Lagun Onaken atezain jokatzeari zuenekoa. 3. Mane umetan, eskolan ateratako argazki batean; ezkerrekoa da bera.



**IKA** Instalakuntza Elektrikoak  
 argi lanak s.l.  
 Urko: 618 06 49 85 / Jon: 649 12 02 71  
 ikaargikonek@gmail.com www.ikasistemak.com  
 20730 AZPEITIA

Zure arloko leialdeko enpresa bat  
**AIZPURU AUTOAK**  
 PREZIOEN OITZARRI  
 Tel: 943 81 23 89 aizpuru@aizpuru.net Arretxo 17, 30730 AZPEITIA  
 Fax: 943 81 22 88 www.aizpuru.net

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	0251 91
Ekoetxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (URTARRILA)

1-2-7-12-13-18-21-28  
Aranburu (Azpeitia).  
943811350

5-11-23-30  
Jacome (Azpeitia).  
943080258

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 30ean izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ KALEAN DA EGUTEGIA.

Kalean da Irudhitzen lehiaketako irudi eta hitzekin osatutako 2019ko egutegia. Bazkideek etxean jaso dute, baina bost eurotan eros daitezke Uztarriaren egoitzan nahiz Plaza Txikiko kioskoan.

4-10-17-24-29  
Arrieta (Azpeitia).  
943 811274

GAUEZ, URTE OSOAN  
Arrieta (Azpeitia).  
943 811274

## GARRAIOA


ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegia osoa:  
[www.uztarria.eus/azpeitia/](http://www.uztarria.eus/azpeitia/)  
autobusak

# MILA ALTUNA

Mintzaneteko bidelaguna

“Askotan diot gertuen dudan biloba dela Gorka”

San Martin egoitzako egoiliarrak hartu-eman berezia egin du euskaraz trebatzen ari den Gorka Fernandez barakaldarrarekin.  Ane Olaizola

**Z**er dela-eta hasi zinen Mintzanet programan parte hartzen?

Duela hiruzpalau urte, psikologoak eman zidan programaren berri, eta probatu nezan proposatu zidan. Horixe egitea pentsatu nuen, eta erabaki nuen mintzalagun bezala hastea, probatze aldera. Hasieratik oso gizon jatorra eta irekia iruditu zitzaidan Gorka, eta orduan, pentsatu nuen programarekin jarraitzea. Sevillara bizitzera joandako barakaldarra da Gorka. Euskaldunberria da, eta euskararekin harremana izaten jarraitu nahi zuen Sevillan. Orduz geroztik, Gorkarekin izugarritzko harremana egin dut.

**Mintzalaguna zara. Zein da zure egitekoa?**

Hamabostero, ordu erdiz hitz egiten dugu Internetez. Horixe da kontua: euskaraz hitz egitea. Edozer gairi buruz hitz egiten dugu. Familia, bakoitzaren bizimoduaz... 23 urtez bizi izan nintzen Kanadan, eta hango bizipenak ere kontatzen dizkiot. Gainera, dagoeneko ezagutzen dut bere familia, eta senideez ere hitz egiten dugu.

**Harreman berezia egin duzu Gorkare-**

**kin, eta haren bisitak ere jaso dituzu, ezta?**


Bai. Gorka eta bere familia Barakaldora joaten direnean, ahal duten guztietan etortzen dira ni bisitatzera. Gorka bizpahiru aldiz etorri da dagoeneko. Etortzen direnean, eguna pasatzen dugu elkarrekin, eta oso etxeko giroan egoten gara.

**Zertarako aukera eman dizu Mintzanet programan parte hartzeak?**

Senidetzat dut Gorka. Askotan diot gertuen dudan biloba dela bera, seme-alabak, ilobak zein bilobak Kanadan baitituz. Poz handia ematen dit daukagun harremanak, eta asko maite dut Gorka. Programan parte hartzen hasi zenetik, hobeto hitz egiten du euskaraz, eta nik izugarri irabazi dut esperientziarekin.

**Inoiz pentsatu al duzu mintzalagun izateari uztea?**

Berak hala nahi badu, mintzalagun izaten jarraitzeko asmoa dut. Lagun handia dut, eta nola utziko dut, bada? Mintzaneten hasi ziren beste egoiliar batzuek utzi egin dute, ez dutelako jakiten zer esan. Baina niri ez zait hala-korik gertatzen; beti dugu zer kontaktua.\*



1. Mila Aldalur Mintzanet programa koordinatzeaz arduratzen den Marian Mangas psikologoarekin.
2. Aldalur, Fernandezekin hizketan.
3. Aldalurrek pasa den saninazioetan jaso zuen Fernandezekin eta haren senideekin bisita.



# Hiztegi ttikia

**A**modioa da gogora dator-  
kidan lehen hitza. Amodioa. Maitasuna. Eta  
hitzarekin batera, 2004an Svetlana Alexie-  
vitxek Gasteizen esan zidana. Svetlana Alexie-  
vitx. Inork ezin asmatu handik urteetara,  
2015ean, Nobel saria jasoko zuela. “Oker la-  
rriren bat konpondu nahi izatekotan, gorroto  
gabe, maitasunaz baliatu behar dugu”. Behar  
bezala entenditu ezinda utzi ninduen orduan,  
eta urte askoan mailu horrexek jo du nire in-  
gudean. “Maitasunaz baliatu behar dugu”.

Askotan, ordea, zera pentsatzen dut: ez  
dagoela erraz, batere erraz ez. Esperantzarik  
gabeko amodioa. Tipo horretara. Orduan,  
Xalbadarren bertsoak kantatzea besterik ez  
zaigu gelditzen. “Amodioa gauza tristea,  
bihotzen higatzailea, / guziz enea bezela  
bada, esperantzarik gabea. / Gizonarentzat  
hau baino malhur haundiagorik bada / ikus-  
ten eta, ezin eskura, maitatzen duen lorea, /  
honela bizi baino ainitzez, hobe litake hiltzea.”

Amodioa da, baina Azpeitia ere izan ziteke-  
en hiztegi ttiki baldar honetako lehen hitza.  
Sortu ginen herria. Esanda dago lehen ere,  
baina jendeak ez du kasurik egiten eta esan  
beharra dago berriz: haurtzaroa igaro ge-  
nuen lekua da gure herria. Gure kasuan, Az-  
peitia. Enparan kalea. Han genuen eskola, je-  
suitinak mojak, eta haraxe gu, Erdikalean bizi  
ginen garai aspaldiko hartan, kastellanoak  
eskolako lagun, eta kastellanoren baten atze-  
tik Erdikalean gora korrika gu mutikoak, gu  
baino laineza handiagoa zuen baten batek gu  
lainezatuta. Gogoan irauten duten arantzak.  
Betharramdarrek ikastetxea egin zutenean  
aldatu ziren gure lekuak, betharramdarrek  
sekulako soroa zuten jolasleku, harri suelta  
zen hasieran, eta huraxe izan genuen harrez-  
kero gure jolastokia. Azpeitikoak gara, alfe-  
rrik da. Bertan ditugu zuztarrak, behin batean  
Manuelek –Goenaga du deitura–, espaloi  
bazterretik esan zigun moduan.

Azpeitiak jaio gintuen, baina Buruagak bizi  
gaitu orain, Gorbeia magaleko herriak Ara-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Azpeitiak jaio gintuen,  
baina Buruagak bizi gaitu  
orain, Gorbeia magaleko  
herriak Araban

ban. Hala eta ere, herria sasoi batean. Kon-  
tzejua da gaur egun. Berrogeita hamar arima  
ere ez. Nuarbe baino txikiagoa, Matxinbenta  
bat, esate baterako. Gasteiztik harrikada  
bide bizi gara, bakean eta patxadan. Sukal-  
deko leihotik urruti xamar ikusten dugu hiri-  
burua, eta Gasteizek lezakeen postalik ede-  
rrena dut horixe, sukaldeko ikusmira. Dagoe-  
la aparte, eta, aldi berean, behar bezain  
eskura premia dugunean, jakina da-eta hiri  
handietan biltzen direla zerbitzurik beharrez-  
koenak. Buruagan, hasteko, ez dago taber-  
narik, ez dendarik, ez ezer. Nork bere ibilgai-  
lua behar du hemen, zenbat buru hainbat  
auto dira etxeetan, eta, gaitz erdi, autobusa  
ere badugu egunean hiru aldiz Gasteizera  
joan-etorrian.

Jasangarritasuna, alegia.

Buruagak, zer esanik ez, basa egin gaitu.  
Hemen bizi garenetik ez gabilta eroso asfal-  
to gainean. Ez da bizimodua.\*



# ELKARREKIN HEZKUNTZA ERALDATZEN



**2019/20 IKASTURTEA  
MATRIKULAZIOA**

**azpeitiko  
ikastola**

ikasberri koop.e.



# TiEN21 ESNAOLA

**ZATOZ**  
DENDA BERRITUA  
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · [esnaelek@outlook.com](mailto:esnaelek@outlook.com)